

hh
hik hasi

Ulermena

Yolanda Arrietari elkarrizketa

'Eusliderrak' egitasmoa

'Hizkuntzarekin jolasean' unitateak

Nolako zientzia bultzatu emakumeentzat?

Aikur erle museoa

Angel Rekalde

5
4
2



BIRSORTU ZABALIK

LUR eta AMETS



OTSAILAREN
7tik AURRERA
ZINEMETAN

AURKIBIDEA

GAIA / 10

ULERMENA

Urte gutxiren bueltan, aldaketa asko gertatu dira gizartean, zentzu zabalean. Testuinguru horretan, ulermenaren gaia hezkuntza komunitateak duen erronka edo problematika handienetako bat dela uste dute zenbait adituk. Baina zer da ulertzea? Ulermenaren gaian sakontzeko asmoarekin, hainbat adituren ekarpenak bildu dira erreportaje honetan.

ELKARRIZKETA / 16

YOLANDA ARRIETA

Urteak daramatza Yolanda Arrietak Haur eta Gazte Literaturako formazioak ematen ikastetxez ikastetxe. Ikuspegi pribilegiatu horretatik begiratzen dio hezkuntzari, eta oinarrietara itzultzeko premia sumatzen du, baita literaturaren kasuan ere. Galtzagorri elkarteak bitartekariak ahalduntzeko sortu duen ikastaroaren diseinuan parte hartu du, eta alor horretan dauden premiez hitz egin du elkarrizketa nagusi honetan.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ane Aranburu, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostizu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Joxe Mari Auzmendi, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2020-01-15).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiek.

5 EDITORIALA

Xuaren beldurrak

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Ulermena

16 ELKARRIZKETA

YOLANDA ARRIETA

“Umeei galdera inteligenteak egitera ausartu behar dugu”

24 ESPERIENTZIAK

Hizkuntza ohitura berriak sustatzen

26 EKARPENAK 1

Ireki ditu ateak Birsortuk

28 EKARPENAK 2

Käffka antzezlan

32 EKARPENAK 3

Xuaren motxilaren zama arintzeko festa, 3 urte bete dituen egunean

34 EKARPENAK 4

Goazen jolastera... euskararekin!

36 GALDEIDAZU

SORKIN

Nolako zientzia bultzatu nahi dugu neskek eta emakumeek parte har dezaten?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Aikur erle museoa

42 ATZEKO ATETIK

Angel Rekalde

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN




Gipuzkoako Foru Aldundia



zerbitzua eta lana euskaraz

Prestaketak



Birsortu, denon artean eta denon onerako

editoriala

ENPRESETATIK IKASTETXEETARA, ESPARRU BATEAN BALIORIK EZ DUENARI BESTE ESPARRU BATEAN BALIOA ETA ERABILPENA EMANEZ, ELKARTASUNEZ BETETAKO PROIEKTUA ABIATU DUTE HIK HASIK ETA EMAUSEK.



Hik Hasi egitasmo pedagogikoaren aspaldiko ametsa zen eta duela bi urte Emaus Gizarte Fundazioarekin hasitako lankidetzaren ondoren bete da ametsa: Birsortu proiektua egi bihurtu da. Urtarrilaren 24an ireki zituen ateak Emausen Arrasateko eraikinean. Jada martxan da.

Poza ematen du ikastetxeei eskaintza berri bat egiteak. Birsorturen 40 m²tan enpresetik ekarritako materiala edukiko dute eskura hezitzaileek, akatsak dituzten edo enpresetan soberakin duten materiala, txukunduta eta sailkatuta. Behar dutena edo egoki ikusten dutena doan eskuratzeko eta ikasleekin erabiltzeko aukera izango dute. Material berria erosi ordez Birsortun daudenak berrerabiltzeko parada izango dute.

Ekintza xume horrekin uste baino balio gehiago landuko eta transmitituko dituzte. Hasteko, industriaguneetan sortzen diren hondakinak murriztuko dira berrerabilpena sustatuz. Horrez gain, birziklatzera bota behar diren hondakinak berrerabiliz, sortze-prozesuak sustatuko dira haurren artean. Material horiekin haurrek beraiek erabakitzen baldin badute zer egin, alegia, zer erabilera eman, sormenaz gain hezkuntza parte-hartzailea sustatu daiteke. Eta haurrek zein helduek industriak baztertutako materialari balioa ematen ikasiko dute.

Txanponaren beste aldea enpresek osatzen dute, hori gabe ezinezkoa baita proiektua aurrera eramatea. Egitasmoaren hastapenetan oso erantzun ona jaso dugu enpresen aldetik, laguntzeko eta proiektuan parte hartzeko prest agertu dira eta enpresa horiek emandako materialez bete dira Birsorturen apalak. Ongi ulertu dituzte Birsorturen asmoak eta helburuak eta hasieratik bertatik partekatu dituzte. Izan ere, zergatik ez eman erabilera pedagogiko eta baliosu bat soberan dituzten materialei? Akatsa duten materialek ez dute balio enpresentzat, baina umeek esku artean erabiltzeko, manipulatzeko eta esperimentatzeko primerakoak izan daitezke. Orduan, zergatik ez? Eman eta jaso, hartu eta berrerabili, zabaldu eta eskuratu. Denon onerako da. Guztioi egiten digu mesede berrerabiltzeak eta eredu jasangarriagoa bultzatzeak.

Poza ematen du denok norabide berean arraun egiten ikusteak. Eta poza ematen du, nola ez, harreman berriak egiteak eta lankidetzak berriak abian jartzeak, elkarlanean aritzeak eta sare-tzen joateak. Herri hezitzailea eratzeko beste urrats bat da hori dena ere.

Xume hasi da proiektua, baina oinarriak ongi jarrita, helburuak finkatuta eta aukera berriei irekita. Asmo ona eta duina du, eta horrek laguntzaile prestuak eta eskuzabalak ekarriko dizkiola uste dugu. Ezin du bestela izan.

“Enpresa batean, bata bestearen akatsak ikusmiratzen direnean, giroa txartu egiten da. Aldiz, aintzat besteen alde positiboak hartzen badira zintzoki, orduan egitaterik ederrenak burutzeko ekipoa loratzen da”

Joxe Azurmendi



IRUÑEKO UDALAK EUSKARAZKO HEDABIDEAK PUBLIZITATE INSTITUZIONALIK GABE UTZI IZANA SALATU DU HEKIMENEK

Iruñeko udal gobernuak 2020 urterako publizitate instituzionala esleitzea helburu duen esparru-akordio berrian euskarazko hedabideak kanpo utzi ditu eta Hekimen euskarazko hedabideen elkarteak erabaki hori salatu du, eta baita Hik Hasik ere, elkarteko kide den heinean. Hauxe da Hekimenek gaiaz egin duen irakurketa: "Iruñeko udal gobernuak euskarazko hedabideek bete ezin duten baldintza ezarri du bere publizitate lizitazioan eta horrela publizitate instituzionala esleitzea helburu duen esparru-akordio berritik at utzi ditu. Hedabideei publizitate instituzionalaren banaketan parte hartu ahal izateko gutxienez audientzia osoaren % 10arengana iristea eskatu zaie eta horrek, gaur gaurkoz, euskarazko hedabideen kasuan, beren audientzia potentzial osoarengana iritsi beharra suposatzen du, izan ere, Iruñean euskal hiztunak biztanleria osoaren % 10,5 dira.

Baldintzetan inolako hizkuntza irizpiderik ez jasotzeak agerian uzten du Iruñeko Udal gobernuak ez duela bertako euskaldunen hizkuntza-eskubideak errespetatzeko inolako asmorik eta, era berean, argi erakusten du erabat arrotz zaiola euskarazko hedabideek euskararen normalizazio prozesuan betetzen duten funtzio garrantzitsua.

Hizkuntza irizpiderik ez jartzea, hedabide guztiei gutxieneko audientzia maila berdina eskatzea edota balorazioan audientziaren gaiari puntu guztien % 75 eskaintzea, guztiak ere euskarazko hedabideak lizitaziotik at uzteko trikimailuak izan direla pentsarazten digute.

Izan ere, neurri horiei esker, Enrique Maia buru duen udal gobernuak 600.000 euro banatuko ditu aurtien 6 hedabidetan udal publizitatea txertatzearen truke, baina diru-multzo horretatik euro bakar bat ere ez da euskarazko hedabideetara bideratuko.

Era berean eta bukatzeko, kezka agertu nahi dugu urte hasieran Nafarroako Gobernuak 2020 urteko ikus-entzunezko ekoizpena laguntzeko argitaratu duen dirulaguntza deialdian egin diren aldaketengatik. Kasu honetan ere ez da hizkuntza irizpiderik ezartzen eta tipologietan edota diru-poltsetan egin diren aldaketek ez dute euskarazko hedabideentzat gauza onik iragartzen".

ABIAN DA IKASLEEN MUGIMENDU BERRIA

Gora Ikasleen Borroka dinamikak bultzata, "ikasle subjektu nazional" bat erakitzeke prozesua abian dutela jakinarazi zuten Donostian. Ikasturte hasieratik ari dira batzarrak egiten eta orain beste urrats bat egitera doaz. *Kargatzen* leloa jarri diote prozesuari eta helburua "itzalita dagoen ikasle mugimendua kargatzen jartzea" da.

UMEEN HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA DEFENDATU DU TXIBETEK

Espainiako Vox alderdi ultraeskuindarrak gurasoei beto eskubidea eman nahi die euren seme-alabek hezkuntzan genero ikuspegiarekin lotuta jasotzen dituzten edukien gainean. Maria Txibite Nafarroako presidenteak ez duela horrekin bat egiten adierazi du, hori "beto ideologiko" bat dela iritzita. PSNko buruak uste du umeek hezkuntza afektibo-sexuala eta "berdintasunezkoa" jaso behar dutela. Haren iritziz ume guztiek duten eskubide bat da hezkuntza afektibo-sexuala jasotzea, gurasoak ados egon ala ez, "seme-alabak ez baitira gurasoen jabetza". Txibitek gaineratu du gizarte osoaren egitekoa dela "berdintasun gaietan lan egitea", eta baita sexu-abusuen prebentzioa egitea ere, eta zentzu horretan adierazi du ez dagoela hezkuntza afektibo-sexuala baino tresna hoberik prebentzio lan hori egiteko.

Gauzak horrela, gurasoei beto eskubidea eman nahi dien proposamen horren aurkako adierazpen instituzionala onartu du Nafarroako Parlamentuak.



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

IRAKASLEAK ERRETRETA SISTEMAREN AURKAKO MUGIMENDURA GEHITU DIRA



Frantziako Gobernuak egin asmo duen erretretaren erreformaren aurkako mugimendu soziala hedatzen ari da. Urtarrilean irakasleak gehitu zaizkie grebalariei, eta urtarrilaren 17an Baionan egin zuten mobilizazioan 2.000 pertsona bildu ziren. Orain arte trenbideetako langileek bideratu dute greba nagusiki, baina sindikatuen erranetan, sektore berri batzuk batzen ari dira, horien artean irakaskuntzakoak. Baionako mobilizazioen harira, Estitxu Robles Arangiz kolegioko langile gehienak grebara batu ziren hilaren 17an, eta ikastetxea hertsirik egon zen. Ipar Euskal Herriko beste hainbat ikastetxetan ere ohi baino grebalari gehiago kontatu zituzten, Donibane Garaziko Nafarroa lizeoan, esate baterako.

Irakasleen mobilizazioa saretzen ari dela adierazi dute hainbat irakaslek eta ikastetxeen arteko biltzarrak antolatzen hasi direla urteko lehen hilabeteetan. Txomin Hiriart Estitxu Robles Arangiz lizeoko Historia irakasleak argi utzi zuen "erreforma honen salatze" irten zirela grebara. Haren iritziz, "Gobernua zuzengabetasun osoz ari da eta horrek aberatsen eta xumeen arteko zuloa etengabe handitzen du". Horrekin erabat kontzientziaturik daude irakasleak eta aipatu lizeoa bost aldiz itxi dute. Argi ikusten dute irakasleen artean zerbait mugitzen ari dela eta haien artean saretzen hasiak direla.

Trenbideetako langileek begi onez ikusten dute beste sektoreen mobilizazioa, haien ustez "sektoreetako langileen arteko elkartasunari esker" lortuko baitute aurrera segitzeko indarra. Denek bukatu nahi dute "erreforma suntsitzailer" honekin.

NAFARROAKO ESKOLA PUBLIKOETAN ERLIJIO ORDUAK MURRIZTEKO PROPOSAMENAK EZ DU AURRERA JO

Ezkerra koalizioak Nafarroako eskola publikoetan erlijio orduak murrizteko lege proposamena aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan, baina ez da aurrera atera Navarra Sumaren ezezkoaren eta PSNren abstentzioaren ondorioz. Urriko osoko bilkuran Navarra Suma ez beste alderdi guztien babesa jaso zuen proposamenak, baina Parlamentuko Hezkuntza Batzordea iritsi zenean PSN abstenitu egin zen, eta horrek tramitazioa etenarazi zuen, nahiz eta gainerako alderdiek alde bozkatu -Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerra-. Gauzak horrela, 2020-2021 ikasturtean aurtengo ikasturteko ordu kopuru berarekin jarraituko dute.

HERRI URRATS KOLEGIOEI LAGUNTZEKO EGINGO DA

Maiatzaren 10ean ospatuko da aurtengo Herri Urrats ohiko lekuan, Senperen. 37. aldia izango da eta Seaskako kolegioei laguntzera bideratuko da lortzen den dirua. Izan ere, Seaskako lau kolegioak ikaslez gainezka daude eta eraikin berriak egin beharrean aurkitzen dira.



BIDAIA PEDAGOGIKOA ANTOLATU DU HIK HASIK FINLANDIARA



Apirilaren 14tik 19ra Finlandiara bidaia egingo du Hik Hasik. Bidaian zehar, lehenik Finlandiako hezkuntza-sistema ezagutuko da han bertan, eta ondoren, bertatik bertara Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeak ezagutuko dira. Honako hau izango da egitaraua:

- Apirilaren 14an hegaldia Loititik Helsinkira.
- Apirilaren 15ean: Finlandiako hezkuntza-sistema ezagutzeko hitzaldia eta elkarrizketak eta ondoren eskoletara bisitak.
- Apirilaren 16an: eskoletara bisitak.
- Apirilaren 17an: eskoletara bisitak.
- Apirilaren 18an: eguna libre, Helsinki ezagutzeko.
- Apirilaren 19an: Euskal Herrira itzulera.

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak bisitatuko dira, taldetan. Baita liburutegiak eta irakas-egoitza gehiago ere.

Prezioak hauek dira:

- hik hasi eta HAZI HEZIk harpidedunek: 1.585 euro.
- hik hasiko harpidedunek: 1.600 euro.
- HAZI HEZIk harpidedunek: 1.630 euro.
- Prezio arrunta: 1.650 euro.

Prezioetan honakoa sartzen da: joan-etorriko bidaia nahiz Helsinki bertako desplazamentuak; lo-lekua eta gosaria GLO Art Hotelean; bazkari guztiak; eta eskoletako nahiz egoitzetako bisitak. Logelak binakakoak dira. Norbaitek bakarrik lo egin nahiko balu 200 euroko gehigarria ordaindu beharko luke.

Izen-ematea urtarrilaren 25ean irekiko da eta otsailaren 10ean itxiko da. Matrikula egiterakoan lehentasuna hik hasi eta Hazi Hezik harpideek izango dute (norbanako harpideek). Irizpide hori kontuan izan ondoren, berriz, matrikula egin ahala gordeko dira lekuak.

EBALUAZIO HEZITZAILEA AZTERGAI DUTEN JARDUNALDIK IZANGO DIRA EIBARREN

LAB sindikatuak eta UEUK *Ebaluazio hezitzailea iruten II.* jardunaldiak antolatu dituzte otsailaren 8rako Eibarko Markeskua jauregian. Besteak beste, hainbat galderari erantzuten saiatuko dira: nola apurtu azterketa-nota binomioa? Zer egin selektibitatea, baxoa eta sistemak inposatzen dizkigun oztopoekin? Nola gainditu eskema zaharrak? Ez da erraza ebaluazio hezitzailea egitasmotik errealitatera eramatea, baina saiakerak eta esperientzia errealak badira, eta horietako batzuen berri emango da jardunaldian.


9:00etatik 14:15era hauxe da prestatu duten egitaraua:

- Kokapena: ebaluazio hezitzailea. Marko teorikoaren aurkezpena, oinarri pedagogikoen garapena eta dekalogo Ruben Iglesias eta Nora Salbotxen eskutik.
- Praktika onak ezagutu: Haur eta Lehen Hezkuntzako proiektuak eta adibideak; Arbizuko Kattuka haur eskola eta Azkoitiko Bizilore eskola aktiboa.
- Praktika onak ezagutu: Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta unibertsitatea; Gasteizko Armentia ikastola, Tolosaldeko Lanbide Heziketako ikastetxea eta HUHEZI unibertsitatea.
- Ondorio orokorrak eta hausnarketa Ruben Iglesias eta Nora Salbotxek gidatua.
- Balorazioa.

HIZPIDE IZANGO DA

URRZUNOTARRAK GEHITUZ LEHIAKETA ANTOLATU DU 35. ALDIZ EAE-KO HEZKUNTZA SAILAK DBHKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEENTZAT

Hezkuntza Sailak ireki du 2019-2020 ikasturteko *Urruzunotarrak Gehituz* literatura lehiaketara lanak aurkezteko epea. Prosan zein poesian, otsailaren 28ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak. Duela hiru hamarkada baino gehiago sortu zen lehiaketa hau, euskal ikasleen artean literaturarako zaletasuna sustatzeko, eta gazteok euskara beren go-goeta, bizipen eta sentimenduak adierazteko tresna gisa lantzeko helburua bere eginda. Lehiaketaren oinarriak xeheago, eta parte hartzeko orria argitaratuta daude honako esteka honetan: https://www.euskadi.eus/saria_lehiaketa/2020/urruzunotarrak-gehituz/web01-tramite/eu/



LUZAROK PSIKOMOTRIZITATE SENTSIBILIZAZIO IKASTAROAK ANTOLATU DITU

Luzarok antolatzen duen Heziketa-rako Psikomotrizitate Praktikako bi urteko ikastaroa egiteko, ezinbestekoa da aurretik psikomotrizitate sentsibilizazio ikastaroa egitea. Eta oraintxe ireki dute sentsibilizazio ikastaro horietan izena emateko aukera. Hiru lekutan egiteko aukera izango da: Bilbon maiatzaren 8, 9 eta 10ean; Martutene-Donostian maiatzaren 15, 16 eta 17an; eta Gasteizen irailaren 18, 19 eta 20an. Informazio gehiagorako: www.luzaro.net, info@luzaro.net eta 943 76 90 33 telefonoan.



GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola, herri eta auzo txikiak bizirik!

ABALTZISKETA
ADUNA
AGIÑA
AIZARNA
AIZARNAZABAL
ALBIZTUR
ALKIZA

ALTZO
ANGIOZAR
ARROA
BERROBI
BIDANIA-GOIATZ
EREÑOZU
ERREZIL

EZKIO-ITSASO
GABIRI
IGELDO
IKAZTEGIETA
ITSASONDO
LARRAUL
LIZARTZA

OIKIA
OLABERRIA
ZERAIN
ZIZURKIL
ZUBIETA





Ulermenaren gaia hezkuntza komunitateak duen erronka handienetako bat dela uste dute zenbait adituk. Baina zer da ulertzea? Erreportaje honetan ulermenaren gaian sakontzeko asmoz hainbat adituren ekarpenak bildu dira. Ekintza kognitibo konplexuen bidez eraikitzen den prozesu hau ulertzea ez baita erraza duen konplexutasun guztiagatik. Espiritu kritikoaren garapenarekin lotzen du Abel Camacho irakasle eta hizkuntzalariak ulermena, “errealitatea ulertzen ez duenak nekez hartuko baitu erabaki egokirik beretzako zein besteentzako”. Ainhoa Ezeiza EHUko irakasle eta ikertzaileak, berriz, kultur aniztasunean lan egitearen garrantzia azpimarratzen du. ‘Ulermenaren Etika’ proposamenari erreferentzia egiten dio Ezeizak, “hezkuntzan ulerkeraren etika bat eraiki behar da, ez ulermenarena, baizik eta elkar ulertzearena”.

GAIA: ULERMENA

Errealitatea interpretatzeko eta elkarbizitzeko oinarria

Urte gutxian gizartean, zentzu zabalean, aldaketa asko gertatu direla gauza nabaria da. Harreman moduetan, bizitzaren erritmoetan, ikasketa prozesuetan, zein bizitzaren beste hainbat arlotan aldaketa ugari bizitzen ari gara, eta horrek guztiak ere eragina dauka pertsonon prozesu kognitiboetan. Testuinguru horretan, ulermenaren gaia hezkuntza komunitateak duen erronka edo problematika handienetako bat dela uste dute zenbait adituk.

Abel Camacho irakaslea eta hizkuntzalaritzan aditua ere uste horretakoa da. Defendatzen duenez, “hezkuntza prozesu guztietan beti egon da erdi-erdian ulermenaren lanketa, ulermenaren garapena. Baina gizartea nola ari den aldatzen ikusita, biderkatu egin da ulermenaren lanketaren garrantzia”. Camachoren ustez, “gezurra sistematikoki esaten den gizarte batean bizi gara, non gezurra asmo politiko, ekonomiko eta sozial jakin batzuetarako erabiltzen den. Horrek ondorio batzuk ditu. Eskoletan eta institutuetan gazteek datuak eta iritziak bereizteko zailtasunak dituztela ikusten ari gara. Eta zer ari gara lortzen? Edo zer ari dira lortzen? Gezurrez beteriko gizarte batean bizita, erakunde edo lobby jakinek lortzea etekina”. Infantilizazioaren fenomenoak aipatzen du horren guztiaren

atzean: “Gaur egun, badirudi dena dela posible, dena sinesten dugu, dena da magikoa. Baina dena ez da posible. Eta ikasle gazteek ikaragarriko arazoak dituzte posible dena eta ez dena ezberdintzeko”. Horregatik, ulermenak beti izan badu ere errekonozimendu edo arreta handia, momentu hauetan ulermenaren lanketaren beharra askoz ere handiagoa dela aipatzen du.

Espiritu kritikoaren garapenarekin lotzen du Camachok ulermenean trebatzearen behar hori, izan ere, biek elkarren artean “ikarazgarriko lotura” dutela uste du. “Espiritu kritikoa da landu behar duguna eta horrek izan beharko luke hezkuntzaren helburua, baita misioa ere. Eta zer da pertsona kritikoa izatea? Kritikoa izatea da errealitatea ikusi, atzeman, atzertu, norbere filtroa pasa eta hainbat irizpideren arabera, ondorio jakin batzuetara iritsi ahal izatea”. Norberaren begirada egongo litzateke amaieran, baina horren aurretik kokatzen du ulermenaren funtzioa. Horregatik, espiritu kritikoaren garapenari eragiteko funtsezkoa iruditzen zaio ikasleek ulermenean behar besteko prestakuntza edo trebakuntza izatea. Bere ustez, “ez dago ulermen garapen eraginkorrik gabeko pertsona askerik, pertsona kritikorik”, izan ere, “errealitatea ulertzen ez duenak nekez hartuko du erabaki egokirik beretzako, zein besteontzako”.

GAIA: ULERMENA

Errealitatea interpretatzeko eta elkarbizitzeko oinarria

Hizkuntzalariak trantze moduko batean ikusten du gaur egungo paradigma. Errealitate horretan faktore askok eragiten dutela aipatzen du, eta maila akademikoan, esaterako, nahiko proposamen argiak egin direla ere bai. Baina ulermena oso prozesu aktiboa dela azpimarratu nahi du, azken urteetan bestela ulertu bada ere: “Ulermena beti lotu izan da zerbait pasiboarekin. Entzuten duenak ez du hitz egiten, irakurlea irakurtzera mugatzen da... Beraz, pasiboa da. Baina guztiz kontrakoa da ulermena, zeharo aktiboa da. Izan ere, ahozko esapide bat zein idatzizko testu bat aurrean daukagunean, norberak dakien guztiari, entzun edo irakurri duenak ematen diona gehitzen zaio, eta interpretatu egin behar du. Alegia, inoiz ez gara hutsetik abiatzen”. Zentzu horretan, testuingurua ezagutzearen garrantzia azpimarratzen du: “Zenbat eta ezagutza gehiago eduki errealitateaz, orduan eta errazagoa izango da ulertzea errealitate hori”. Horregatik, ulermenaren prozesua “oso konplexua” dela aipatzen du, eta ondorioz, ulermenaren garrantzia azpimarratu behar dela dio, konplexutasuna baloratu egin behar dela.

Ikasleei laguntzeko gakoak

Ukertzea eta interpretatzea esku beretik ikusten ditu Camachok eta komenigarria ikusten du aipatzea zer den interpretatzea: “Interpretatzea izango litzateke datu batzuk izan –idatziz zein ahoz–, informazioaren ikuspuntik aztertu, ematen diren ideiak identifikatu, eta gero ideia horiek norberaren eguneroko bizitzan nolako eragina duten jabetzea. Gako horiek argi izatea garrantzitsua da”. Horrez gain, ulermenaren garapenean eta espiritu kritikoaren garapenean ikasleei laguntzeko honako irizpideak aipatzen ditu: “Batetik, ulermena hizkuntza ikasgaira soilik ez da



mugatu behar. Oso polita geratzen da ulermena zehar-lerro gisa landuko dela esatea, baina benetan sinestu behar dute irakasleek horretan. Jakina da, adibidez, gaur egun gure ikasleak ezin direla zientifikoki analfabetoak izan, eta zientzia ikasgaietan ulermenaren garrantzia erabatekoa da. Nik ulertzen dut, adibidez, zientzia arloko irakasle batek curriculumeko eduki hori landu nahi izatea, eta horretara bideratzea bere indarrak. Baina kontuan izan behar du eduki curricular hori gehienetan gauzapean lingustiko baten bitartez gertatzen dela. Eta hor erronka handia daukagu; curricularki ustez erlazio zuzenik ez duten ikasgaietan ere gauzapean lingustiko horri zentzu pixka bat eman behar diogu”.

Horrekin batera, garrantzitsua deritzo aurrean dugun esapide edo testu horrek gure eguneroko bizitzan duen eraginari erreparatzea, eta hori ideologiari lotuta ikusten du: “Bizitzan zehar guztia da politika –amodioa bera ere politikoa dela irakurri berri dugu *Jakin* aldizkarian–. Politika pertsonen elkarrekin aurrera egiteko, atzera egiteko, egoteko, bizitzeko dugun modua da. Eta zerumuga ideologiko hori gero eta garrantzitsuagoa da, errealitatean gertatzen denari zentzu bat ematen zaiolako. Balio bat eta balore bat. Eta hori ulertzen ez badugu, aurkezten zaigun testu, whatsapp bidezko audio, bideo eta testu genero aniztasun berri horri ez badiogu erantzuten zentzu zabal batean, askotan aurkituko gara erdi-bidean eta erdi-galduta. Eta engainua hortxe edukiko dugu gainean”.

Ainhoa Ezeiza Euskal Herriko Unibertsitateko Didaktika arloko irakasle eta ikertzaileak eta Ilusionista Sozialen mugimenduko kideak gaur egungo testuinguruan paradigma aldaketa bat gertatzen ari dela aipatzen du, eta paradigma horretan konplexutasunaren teoriatik lan egitearen ideia azpimarratzen du: “Zientzia esperimentaletan aditu direnek esaten dute mundua konplexua dela, eta horregatik ezin dugula ikertu edota lan egin modu enpirikoan. Alegia, modu enpirikoan egiten duzuna oso sinplea dela. Eta, aldiz, jendearekin lan egiten duzunean ikasi behar duzula konplexutasunean lan egiten, konplexutasuna ulertzen”. Ideia horretatik abiatuta ari dira lantzen ikerketa taldean konplexutasunaren teoria hezkuntzaren ikuspegitik eta doktore tesi bat ari dira garatzen ideia horretan oinarrituta.

Ulermen motak eta ikuspegiak

Edgar Morin soziologo eta filosofo frantsesa izan da konplexutasunaren teoria hezkuntzan landu duen autoreetako bat. Morinek bi ulermen mota bereizten

GAIA: ULERMENA

ditu. Bata ulermen intelektuala edo objektiboa eta bestea pertsonen arteko ulermen intersubjektiboa. Ulertzeak intelektualki taldean jasotzea esan nahi du, taldeari atxikitzea –testua eta bere testuingurua, zatiak eta guztia, askotarikoa eta norbanakoarena–. Zentzu horretan, autore horren arabera, “azaltzea, objektu bati buruz ezagutu beharreko guztia kontuan hartzea da, eta, jakintza objektiborako tresna guztiak ezartzea da. Pertsonen arteko ulermena azalpenetik harago doa. Azaltzea nahikoa da gauza ezezagun edo materialen ulermen intelektual eta objektiborako. Ez da nahikoa, ordea, pertsonen arteko ulermenerako. Elkar ulertzeak ezinbestean enpatiarako, identifikatzeko eta proiektiorako prozesu bat du bere baitan. Beti intersubjektibotasunez; ulertzeak irekitzea, sinpatia eta eskuzabaltasuna behar ditu”.

Ulertzea zer den azaltzeko Ainhoa Ezeiza irakasle eta ikertzaileak hiru ikuspegi nagusi aipatzen ditu. Bata gutxi gorabehera 50eko hamarkadan abiatu zen ikuspegi konputazionala da. Ikuspegi horren arabera, kanpotik datozkigun inputak gure burmuinaren eremu ezberdinetan kokatzen dira. “Input horiekin egiten duzun analisiaren arabera aurretik daukazun ezagutza deuseztatu egiten duzu edo berri bat sortzen duzu. Hori dio ikuspegi konputazionalak, eta ez da gezurra baina ikuspegi hori mugatua da”. 70eko hamarkadatik aurrera beste ikuspegi bat joan zen garatzen hizkuntzen irakaskuntzari begira. Ikuspegi horren arabera, “ulermenean hizkuntzak garrantzia handia du, eta hizkuntzak ezagutzeak laguntzen du, baina ez da ez nahikoa eta ez ezinbestekoa. Hau da, agian hizkuntza jakin gabe ulertu dezakezu edota agian hizkuntza jakinda ez duzu ulertuko. Zergatik? Gaitasun diskurtsiboa deitzen zaiona ere kontuan hartu behar delako. Horren atzean dago jendeak ez duela bere esana hutsetik sortzen”. Horri lotuta ikusten ditu hizkuntzaren egituraren aldetik komunikazio jarduera ezberdinak lantzeko moduak: “Esaterako, ipuinak sortzeko modu batzuk daude, edo deskribapenak sortzeko, edo eztabaidak sortzeko. Eta modu horiek ez dira itxiak, nahiz eta eskolan askotan modu itxian planteatzen diren”. Horregatik defendatzen du “gaitasun estrategikoaren beharra”, alegia, ikustea zein estrategia komunikatibo dauden egoera konkretu batean zer mezu ari zaizun iristen hobeto ulertzeko, eta zein testuinguru sozialetan. Ikuspegi hori hobeto ulertzeko honako adibidea jartzen du: “Adibidez, batzuetan ikasgelan hizkuntza irakasteko esaten dugunean ‘laguna iritsi da’, hori ez da komunikatiboa eta hori ezin da ulertu. Linguistikoki badakigu zerbait; badakigu pertsona bat badagoela, gurekin afinitatea daukana, gertaera bukatu dela badakigu, eta ez dela izan duela hainbeste. Hori da



hizkuntzak esaten diguna. Ados. Baina zein da laguna? Zertara iritsi da? Zer egin behar dut nik berarekin? Zer harreman mota daukat nik berarekin? Hori da konplexutasunak planteatzen duena; ezin dugula hizkuntza isolatu, ez delako existitzen hizkuntza isolatua, eta zentzu horretan, komunikazio gaitasunaren ikuspegia ideia hori aberastera joan da. Hirugarrenik Vigotsky-k parte hartu zuen ikuspegi soziokonstruktibista aipatzen du irakasleak. Horren arabera, esanahiak sozialki eraikitzen dira: “Pertsona bat bestearekin ari da komunikazioa eraikitzen eta hortaz, batak besteari ulertzen ez dionean batak estrategia aldatu dezake besteari ulerrarazteko. Ikuspegi horren arabera, elkarrekin ikasi behar ditugu gauzak, eta ez soilik irakasleak ematen duen diskurtsotik. Hori zailagoa da irakaslearentzat, ikasleek elkarrekin nola ikas dezaketen jakin behar duelako”.

Kultur aniztasunean lan egitearen onurak

Ezeiza eta haren ikerketa taldearentzat, ulermen konplexua lantzerantz begira kultur aniztasuna oinarri hartuta lan egitea da bide egokia. “Ikuspegi horren arabera, uste da zuk ezin duzula pertsona bat ulertu ez baldin badituzu berekiko gutxieneko identifikazio batzuk. Agian hizkuntza berdina da, baina adibidez nik ‘laguna’ hitza esaten badut eta nahiz eta linguistikoki hitz berdina izan biontzat, adiskidetasunari zuk ematen diozun esanahaia eta nik ematen diodana ezberdinak izango dira. Zenbat eta ezberdinoak izan,

GAIA: ULERMENA

Errealitatea interpretatzeko eta elkarbizitzeko oinarria

orduan eta amildegi handiagoa egon daiteke gure arteko komunikazioan. Horregatik da zaila kultur aniztasunean lan egitea”. Kultur aniztasunaz hitz egitean askotan jatorriaz ari garela pentsatzen dugula dio, baina jatorriaz harago faktore gehiago ere badirela aipatzen du. Antropologian erabiltzen den matrize sozio-kulturala hartzen dute oinarri eta horren arabera, honakoak dira gure mundu ikuskera eratzeko garaian eragina duten lau elementu garrantzitsuenak: bata generoa da, bigarrena etnia –ez soilik jatorria, baizik eta zein ildo historiko-kulturaletik zatozen–, hirugarrena adina da, eta laugarrena klase soziala eta lan kultura. “Zerbait ulertu nahi dudanean nire mundu ikuskeratik noa ulertzeraz. Horregatik, nik testu bat irakurtzen badut, edo zuk zerbait esaten badidazu, aipatutako hori guztia daukat nik, eta gainera, ez naiz konturatzen, edo agian bai. Eta hor dago konplexutasuna. Hori guztia ez badugu kontuan hartzen, eta sinplifikatzen badugu, errazteko, curriculartzatzeko etab. orduan errepikapenean geratzen gara. Jende askori gertatzen zaio hori, uste izatea testu bat ulertu duela edo pertsona bati ulertu diola, gai delako errepikatze pertsona horrek esan duena edo idatzi duena. Baina noski, hori ez da ulertzea”.

Edgar Morinen Ulermenaren Etika proposamenari erreferentzia egiten dio Ezeizak. Izan ere, autore horrek defendatzen duenez, hezkuntzan ulerkeraren etika bat eraiki behar da, ez ulermenarena, baizik eta elkar ulertzearena, “nahiz eta jakin ez dugula elkar ulertzen guztiz. Zenbat aldiz pasatu zaigu, norbaitekin hizketan aritu eta bat-batean esatea:



‘bai! elkar ulertzen ari gara!’ . Momentu hori oso zirrargarria da. Aurreko denbora guztia hurbilpen bat da, baina sentitzen duzunean besteak ulertzen zaituela, bihotza piztu egiten zaizu. Momentu hori oso berezia da”. Testuinguru guztiak dira Ezeizarentzat kultur-anitzak, baina testuinguru batean oso pertsona desberdinak elkartzen direnean, oso garrantzitsua iruditzen zaio dena ez ulertzeak frustraziorik ez eragitea. “Hortik abiatzen bazara, arazo gutxiago izango dituzu, eta ez zara agobiatuko ez duzulako dena ulertzen”.

Kultur aniztasunaren ikuspegitik, gure inguruneako eskolei eta iparraldetik datozen kulturei arazo bat ikusten die unibertsitateko irakasleak: hizkuntzari lotuegi ikusten ditu. “Maila orokorrean, egin dituzten alderaketa ezberdinetan ikusi da ama afrikarrek, adibidez, beraien haurtxoarekin komunikatzen direnean keinuak, mugimenduak edota begiradak erabiltzen dituztela. Aldiz, ama anglosaxoiek, esaterako, gehiago erabiltzen dute hitza. Orduan, beste kultura batetik datorren jendearekin komunikatu nahi baduzu, ulertu behar duzu, adibidez, estrategia horiek falta zaizkizula zuri. Eta oso ondo dago, zeren hortik abiatzen bazara asko ikasiko duzu. Horregatik, ez badiozu besteari zure eredu komunikatiboa inposatu nahi, pila bat ikasten du jende guztiak. Baina zergatik ez dugu egiten? Ikuspegi kolonizatzaile bat dagoelako atzean; batzuek agintzen dugu eta beste batzuek ez”. Haur Hezkuntzako hainbat testuinguru dakartza gogora ideia horri lotuta: “Haur Hezkuntzan lan egiten duten irakasleek askotan esaten dute jatorri ezberdineko haur asko elkartzen direnean, ikustea elkarrekin jolasean, elkarrekin ikasten eta elkar ulertzen. Eta irakaslea bera izaten da askotan ulertzen ez duena”. Testuinguru horretan “gatazka handi bat” ikusten du eskolaren inguruan, “eskolak dena eraman nahi duelako hizkuntzara, eta hori ez da praktikoa eta gainera, konturatzen ari gara ikasle askok ez dutela lortzen ideia berriak sakontasunez jasotzea”.

Testuliburuetakoko testuak jartzen ditu “gatazka” hori ulertzeko adibide gisa. “Aspaldidanik egin dira ikerketak esanez testuliburuetakoko testuak oso etnia konkretu batekoak direla, genero konkretu batekoak, ikuspegi konkretu bat lantzen dutela etab. Hegoafrikar batek egindako ikerlan batekin gogoratzen naiz eta hark zioen Apartheid-aren ostean azal beltzeko pertsonak tontoagoak zirela baieztatzea lortzen ari zirela, ez zituztelako lortzen errendimendu akademiko jakinak. Eta berak esaten zuen: “kontxo, gauzak azaltzeko modua txuriena da”. Gurera etorrita, Ezeizak aipatzen du liburuetan, curriculumean, ez dagoela ezer norbanakoari lotuta. “Testu horiek edo material horiek ez dute kontuan hartu zuk jakintza asko dituzula. Zentzu horretan, haur ijito bilbotar batek,

esaterako, lortu behar du frogatzea gai dela haur zuri bilbotar batek dakiena jakiteko. Aldiz, haur zuriak ez dauka frogatu beharrik haur ijitoak dituen jakintzak badituela. Eta horrek zer esan nahi du? Batak gutxiago balio duela besteak baino”. Zentzu horretan, konplexutasuna lantzeko curriculuma malguki hartzea beharrezkoa deritzo.

Aldaketak prozeduretan eta testuen tipologian

Ulermen konplexua lantzeko aldaketak beharrezkoak ikusten ditu Abel Camacho irakasle eta hizkuntzalariak. Haren ustez, aldaketa behar da prozedura didaktikoetan eta testuen tipologian. “Tipologia teoriko asko dago, esate baterako, irakurketaren ulermena lantzeko. Badira hainbat jarduera. Baina erabiltzen diren horietako asko azalean geratzen dira: testua irakurri eta A, B, C edo D erantzun, edo, egia den edo gezurra den adierazi, hutsuneetan falta diren hitzak ipini, edota testuaren paragrafoak desordenean jarri eta ordenatu, esate baterako. Azaleko ulermenean geratzen dira eta orokorrean ulermenaren ebaluazioari lotuta daude. Ez gaude ulermenaren garapenaren lanketari begira, baizik eta irakurri edo entzun zerbait ulertu duzun neurtzea da bilatzen dena”. Eta honako galdera plazaratzen du: “Ulermena da % 70 ateratzea hizkuntza test batean? Ulermena askozaz ere konplexuagoa da”. Prozesu kognitibo konplexua da ulermena hizkuntzalariaren arabera, eta eragiketa kognitibo horiek landu behar ditugu askotariko prozeduren bidez, sakonera iristeko. Denon arteko irakurketa proposatzen du momentu honetan indartu beharreko prozedura didaktiko gisa: “ikasgela osoa, edo taldeka, edo bikoteka, ozenki irakurtzen eta solasaldian testuak esan duenari buruz, eta, hizketan, zer esan nahi zuenaren inguruan denok interpretazioak eginez, eta bakoitzaren interpretazioaren gaineko eztabaidak eginez, eta bakoitzaren interpretazioaren gaineko eztabaidaren ondorioak ateraz ondoren”.

Prozeduretan aldaketak, batetik, eta testuen tipologian, bestetik. Hala proposatzen du Camachok. Kontatzen duenez, “azken 40 urtetan testu generoen teoriaren arabera, kanonikoak diren hainbat testu mota erabili izan dira: albistea, erreportajea, elkarrizketa... Horiek irakaskuntzan aritzeko bidea ematen dute, hizkuntzaren deskribapen bat egiteko etab. Baina gaur egun testu genero berriak ari dira sortzen, ez dira horren kanonikoak, eta mistoak edo hibridoak dira, gainera. Badira idatzizkoari erantzuten dioten audiozko mezuak, emotikonoak, bideoak, gif-ak... Hezkuntzak ere kontuan hartu beharko duen eremu bat dago hor”.

Literaltasunarekiko menpekotasuna

Azalean geratzen den ulermenari lotuta, bi adituak bat datoz gaur egun gertatzen ari den literaltasunarekiko garatu dugun mendekotasuna ulermenerako arazo inportantea dela esaten dutenean. Maite Ruiz Flores irakasle-ikerlari eta filologoak garatu zuen literaltasunarekiko mendekotasuna (*Dependencia de lo literal*) kontzeptua eta “esaten duenez, zuk oso erraz esan dezakezu ulertu duzula, baina horrek ez du esan nahi zuk benetan ezer ulertu duzunik; zeure buruan aldaketarik, moldaketarik egon denik lehengo eredu konputazional horrekiko”, kontatzen du Ezeiza irakasleak. Honako adibidea ipintzen du: “Zuri esplikatzeko badizute arnas aparatua nola funtzionatzen duen, adibidez. Zer da hori ulertzea? Entzun duzun bezala esatea, ezta? Zure buruan gauza gutxi aldatu da azalpen hori entzun ondoren. Agian hitzen bat edo beste. Baina hitzak ez daude solte geure buruan”.

Bizi dugun testuinguruan, ahozkotasanari eskolan presentzia gehiago ematea ikusten dute erronka gisa bi adituek. Ezeizaren arabera, “eskolan irakurketa estrategiak landu behar ditugu, testu mota desberdinak ere bai, eta testu mota desberdinekin jarduera desberdinak egin behar dira. Baina batez ere, ahozkotasanari leku garrantzitsuagoa eman behar diogu, irakurtzeari edo irakurketari lotutako jardueri baino. Izan ere, idatzizko testuak sinpleagoak dira, mila aldiz irakurri ditzakezu, erreparatu... Eta ez dizu eskatzen oroimen handia. Aldiz, entzutezkoak bai. Ahozkotasunean azkarra izan behar duzu, noiz parte hartu jakin behar duzu, mila aldiz konfundituko zara, eta inperfekzioa hor dago bete-betean. Eta ikasleei galdetzea gai bat lantzean, 'zuk honetaz zer jakin nahi duzu?' Hori ez zaie galdetzen ikasleei, ezta unibertsitatean ere. Eta galdera hori formulatzea bera jada oso lagungarria izan daiteke ulermenerako”.

Abel Camachok ere irakurriari atentzio gehiago jartzen zaiola uste du, errazagoa delako. “Euskarria tratatzeko historikoki zailtasun handiagoak izan dira ahozkoarekin. Irakurriaren ulermena lantzeko testu bat topatzea oso erraza da; gainera, manipulatu dezakezu, kopiak atera, testu zatiak moztu eta beste ordena batean itsasi... Audioa, aldiz, ez da izan hain manipulagarria historikoki. Gaur egun bada, baina duela hamar urte ez. Nik uste teknologiak ikaragarriko aukera eman dezakeela, garbi izanda, beti ere, teknologiak bere horretan ez duela ulermenaren afera konponduko. Baina aukera gehiago ireki ditzake ahozkotasanari lotutako ulermena lehenengo mailara pasatzeko, adibidez”.



“Umeei galdera inteligenteak egitera ausartu behar dugu”

ELKARRIZKETA: YOLANDA ARRIETA

IDAZLEA

Etxeko sukaldean ikasi zuen aitarekin balsean dantza egiten eta duoan kantatzen. Amak, jostuna izanik, erakutsi zion gauzak egin egiten direla, ideia paperera eta ondoren soinera eramateko, egin egin behar dela. Aitaren musikaltasuna eta amaren egitea uztarturik ondu du bere literatur ibilbide oparoa. Genero guztiak ukitu dituen ibilbidea, Haur eta Gazte Literaturan, nola helduenean, genero guztiak ukitu baititu. Azkena zientzia fikzioa,

'Ataria' lanean. Pentsamendu bakarraren arriskuaz ohartarazten du bertan. Eta baita elkarrizketa honetan ere. Eskolan pentsamendu bakarra gailentzeak dituen arriskuez dihardu eta antidoto gisa, literatura eta, oro har, sormena balioesten ditu. Idazketa sortzaileari buruz ikastetxez ikastetxe, urterik urte eskaini dituen lantegi eta formazioek zorrotz dioten begirada pribilegiatutik, eskolak oinarrietara joan behar duela ikusten du.



Galtzagorri elkarteak eta Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailak (EHU), Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak babestuta, 'Haur- eta gazte-literatura eskolan' ikastaro osagarria antolatu du, eta antolakuntzan aritu zara zu Galtzagorritik. Bitartekariak ahalduzko premia ikusten duzue?

Ni, batez ere, hasieran egon nintzen. Iritzi eske etorri zitzaizkidan Eusko Jaurlaritzatik eta udan hainbat bilera egin genituen haiekin, gaiaren inguruan, aspaldiko kezka bati erantzun nahirik, alegia, nola zabaldu eta indartu haur eta gazte literatura hezkuntzan eta jendarteetan. Beraz, delako ikastaro osagarriaren zirriborroan parte hartu nuen Galtzagorri Elkartearekin. Gero, Ibon Egaña EHUtik eta Asun Garikano Galtzagorritik aritu dira guztia josten eta ehuntzen, haiek dira ikastaroaren arduradun akademikoak.

Zure galderari erantzunez, argi daukat egiteko garaia dela. Esparru honetan gabezia hain da handia, ekin egin behar baitiogu, bidean hobetzen eta osatzen joateko, eta bide horretan ekarpen inportantea da hau, bitartekarien formakuntza, nahiz eta helburu nagusia –edo ideala– zera

den: haur eta gazte literatura irakasgai tronkala izatea, behin edo behin, Irakasle Eskolan, hori lortzeko traba burokratiko handiak gainditu behar diren arren.

Ikastaroa irakurketaren inguruan gaurko gizartean eta, bereziki, hezkuntza-esparruan dagoen kezka bati erantzuteko asmoz sortu dugu. Hain zuzen, irakurketa literarioak eskoletan duen lekua hobetu, eta irakurketan bitartekari diren irakasle edo irakaslegaien formazio literarioa aberasteko eskaintza egin nahi dugu. Ikuspegi integral edo sistematiko batetik, egin ere, nondik gatozen eta zer egiten ari garen zabalteko. Esate baterako: zeri deitzen diogu haur literatura? Psikologia aldetik zer ekarpen egiten du haur eta nerabeen garapenean? Irakurketa literarioaren testuinguruak ezagutzeko orduan, zer leku hartzen du irakurketak ikastetxean? Ahozkotasanaren garrantzia: ipuin kontaketak, haur poesia, antzerkia... Genero narratiboak eta genero ikonografikoak ikasgelan... Gauza gehiago ere badaude jorratzeko, baina oraingoz haxe eskainiko dugu.

Dena den, bitartekariak diogunean ez gara ari bakarrik irakasleez. Haurren hezkuntzan parte hartzen

dugun guztiok gara bitartekari. Eta, jakina, gurasoak ere hor daude. Eta hor daude, bestelako zaintzaileak ere: aitona-amonak, monitorea, hezitzaileak... Haurren gaur egungo *etxea*-k gune asko ditu eta gune horietan guztietan lagun dezake literaturak haurren barne-mundua orekatzen, hizkuntzaren ikuspegi afektibo-sentsoriala garatzen, munduari buruzko ikuspegia zabaltean eta komunikazioa hobetzen. Baina horretarako, ezinbestekoa da bitartekariak trebatzea.

Gatozen eskolara: noiz utzi zitzaion literatura eskolako baliabide gisa erabiltzeari? Euskal haur eta gazte Literaturaren abiapuntu garrantzitsuetako bat izan zen, hain justu ere, ikastolen mugimenduarekin euskara ikastetxeetan sartu zenean. Anjel Lertxundik, adibidez, hala kontatzen du. Beraz, loraldia, neurri handi batean, eskolari esker etorri zen, eta gaur egun, zer gertatzen ari da? Mugimendua hasi zenean, derrigorrez ikuspegi integrala zegoen, dena zegoelako egiteko euskaraz, eta horrek berak ikuspegi holistiko bat edukitzea eskatzen zuen. Gero, euskarazko materiala sortzen hasi zenean utzi zitzaion literatura

baliabide bezala erabiltzeari. Apalak egiten hasi ziren: hau, honetarako; hau, honetarako, hau, honetarako... Materialgintzak jokabidea eta pentsamendua zatikatu egin zituen, eta zatiketa horretan indarra hartu du gobernuek nahi dutenak: zenbakiek. Guztia ekonomiarekin lotua dago: eskolako materiala egiteak industria sortu zuen, eta hori ondo etorri zen arren liburutegintza beste era batera ikustea ere ekarri zuen.

Gaur egun, literatura zirkulutik kanpo geratu da. Liburuak askoz gutxiago erabiltzen dira, plataformetara igotzen dira, edo eta eskola askotan proiektuak lan egiten da... Irakurketa lantzen da, baina irakurketa instrumentala da lantzen dena, eta hori oso desberdina da; irakurketa instrumental horrek ez du irakurketa literarioa ordezkatu behar. Irakurketa literarioari ez zaio garrantzirik eman, igual ez zaiolako diskurtsoetan ere beharrezko garrantzia eman, edo igual ez dugulako literaturaren garrantzia esplikatzen asmatu.

Azal dezagun bada, literaturaren garrantzia.

Literatura da informazio sozio-kulturala pertsonaren galbahetik pasatuta. Eta hori oso garrantzitsua da denontzat, emozioak sartzen direlako. Mundua hor dago, historia, zientzia, soziologia hor daude, eta hori irakurtzen ari gara, baina literaturak eta arteak pertsonaren galbahea dauka. Eta hor dago emozioa. “Zer eragiten dit gertatzen denak?” Hori ezin denez banaka kontatu, fikzioa sartzen dugu, adibideak sartzen ditugu. Pertsonak gauzak nola bizi ditugun, adibideak eskaintzen dizkigu literaturak, adibideen bidez kontatzen digu mundua literaturak, eta “ah, hori neuri ere gertatzen zait”, pentsatzen eta sentitzen dugu irakurtzen dugunean. Hori da literatura. Irakasleei hori horrela esplikatzen diedanean, konturatzen dira, “hori ere egin behar dugu”.

Eta orain gauden puntuan, nola berrezar genezake literatura eskolako baliabide gisa?

Oinarrietara itzuli behar dugu.

Irakasle asko ikusten ditut gauzak hobetu nahian, asmo on askorekin... baina hainbeste eskatzen zaie irakasleei! Emozioak landu behar dituzue; ingurugiroa landu behar duzue; harremanak, enpatia, berdintasuna... eta, gero, zientziako gauza guztiak, gehi partaidetza... gehi etorkinak datoz... Gauza gehiegi da, eta ia-ia egunean dabilta irakasle asko. Exijentzia guztiei ezin zaie erantzun, eta behar dena, nire ustez, ikuspegi orokor bat da: “Ea, eskola hau guk antolatu behar dugu; zer erakutsi behar dugu?”. Uste dut momentua dela oinarrietara etortzekoa eta ikuspegi orokorra argi izatea.

Bat: niri iruditzen zait eskolak irakurtzen erakutsi egin behar duela, umeak mundua ulertzeko eta irakurtzeko tresnak behar dituelako. Alde batetik, irakurketa instrumentala ikasi beharko du: A eta M eta A, AMA da, bai; A eta I eta T eta A, AITA da; baina, horrez gain, informazioa pertsonaren galbahetik pasatu behar da, hori da literatura, eta literaturaren bitartez, haur batek gauza asko ikasiko ditu: historia, soziologia, zenbakiak eta mundu matematikoa, espazioa, ezagutuko du denboraren eragina pertsonengan(ikasiko du gauzak ez direla beti berdinak, beste modu batera izan direla eta izan daitezkeela gero ere; eta non zauden, gaur egun ere, gauzak desberdinak direla); eta, batez ere, ikasiko du, “ene, ez nago bakarrik; ni bezalakoak dira besteak, baina, era berean, ni eta besteak, denok gara desberdinak”.

Zer gehiago erakutsi behar du eskolak? Zenbatzen jakin behar dute haurrek. Eta irakurketarekin eta zenbakiarekin loturik dauden hainbat galderari erantzuten ere erakutsi behar dio: “zein naiz ni? Non nago? Eta norekin nago?” Eta kito. Beste guztiak adarrak dira. Oinarriak finkatzeak esan nahi du beste gauza asko alboratu egin behar direla, ez ez direlako onak, baizik eta oinarri sendoak behar ditugulako gero adarrak atera ahal izateko. Berdintasuna txertatu behar dugu, bada “non zaude?” eta “norekin zaude?” erakusten badiogu umeari,

“Helduok bitartekariak gara, eta beraz, ondorengo belaunaldiaren guraso gara, nahiz eta seme-alabarik izan ez, eta hori onartu egin behar dugu. Hori onartzen ez badugu, 50 urterekin ume izaten jarraituko dugu (zentzu ahulean)”

“0-6an umeak ez du informazioa behar, umeak pertsona heldua behar du, eta entzuna, babestua eta maitatua sentitu behar du. Eta jolastu egin behar du. Haur txikia berehala konturatuko da hizkuntzarekin jolas egin daitezkeela”

“Sormenari ere kendu egin behar diogu kutsu lehiakor amerikano guaia. Sormenari kendu egin behar diogu argazkian ateratze hori, eta lehia kutsua. Antigoalekoa da eta txarrerako”



besteekin dagoela ikusiko du. Eta irakurtzen ari zarenean, ikuspegi ezberdinak lantzen ari zara, hau da, enpatia lantzen ari zara.

Ez diogu guztiari amen egin behar; eskola gu gara, eta eskolak bere lekua dauka, bere auzoa, bere umeak... Gutxieneko elkarbizitza bat behar dugu, eta munduan mugitzen jakiteko oinarriak behar ditugu. Ez da duela 40 urte bezala: orduan informazioa eman behar zitzaion umeari; gaur egun, informazio gehiegi dauka umeak. Dieta egin behar du eskolak, umeak enpatxaturik baitaude.

Gaur eguneko haurrek informazio-enpatxua dutela esan nahi duzu?

Estimulu gehiegi daukate, eta estimulu azkar gehiegi: botoi bati eman eta dena dago eskura. Drogaren efektua da. Txokolate ontza bat jan, eta gero beste bat eta gero beste bat, eta azkenean, antsietatez,

tableta osoa jaten dugu. Hori da estimulu azkarrekin gertatzen dena, momentuko antsietatea ito egiten da, baina, gerora, hau dena hutsik dago. Hori ari da gertatzen gaur ume askorekin. Hainbeste estimulurekin ohitu dira, kontzentratzeko arazoak dituztela. Beraz, orain kontzentrazioa ere landu egin behar dugu, kontzentrazio horrekin arreta etorriko da, eta horrekin etorriko da haurraren harridura.

Literatur-kontaketa egiteko, estimulurik gabeko leku bat aukeratzeko esaten diet irakasleei; leku garbia, hartu titanluxa eta horma zuriz margotu; kendu adonuak, kendu zaratak... Eta behin lekua aukeraturik, literatura ahotsera ekarri. Gorputzera ekarri behar dugu informazioa, eta esperientzia bihurtu behar dugu, orduantxe trankilduko da haurra, eta norbait dela sentituko du. Hizkuntzaren alderdi sentsoriala

errebindikatzen dut, galdu egin baitugu.

Ikuspegi pribilegiatua duzu, batetik, ibilbide luzea egin duzulako, ez zara gaur goizean hasi eskolarik eskola formazioak ematen; eta horrez gain, kanpotik etortzen zara, ez zara ez gurasoa ez irakaslea... Urte hauetan guztietan, zer-nolako bilakaera ikusi duzu haurrengan eta eskoletan?

Arreta asko jaitsi da, asko-asko-asko. Badaude umeak eserita egon ezin direnak, nola ba? Kontaketa bat ahotsez eta beste euskarririk gabe egiten dudanean izerdi asko bota behar izaten dut umeen arreta mantentzeko. Hala ere, ikusi dut baita ere, egin eta egin eta egin, umeak ohitu egiten direla. Haur poesian, “zu, ni eta kontaktzen ari garena” dago, eta umeak ohitu egiten dira horretara. Baina horrek denbora eta espazioa eskatzen ditu: isil-isilik eta goxo egongo garen leku bat, kolorinik gabe eta zaratarik gabe. Eskola guztietan dago taladro bat eskola orduetan! Eskizofrenia handi batean bizi gara: masterrak ari gara egiten arretari buruz, eta gero ikastetxeak beti obretan daude eskola orduetan. Oinarrietara joan behar dugu. Kontzentrazioa landu behar badugu, burrunba kendu egin behar dugu, eta hori egin daiteke. Horrek guztiak irakaslearen jarrera eskatzen du, “egin egingo dut, hasi egingo naiz”. Baina irakasle asko nekatuta daude, eta beldur ere badira, gurasoen beldur, umeen beldur.... aldaketa hori ere ikusten dut.

Nik garrantzi handia ematen diot tutore on bati. Tutore ona izateak esan nahi du, nire ustez, gela ondo ezagutzen duela, gelako ume bakoitzaren norabideak ezagutzen dituela eta ez ezagutu bakarrik, gestionatzeko gai dela. Eta gestionatzeak esan nahi du mugak ezartzen badakiela, eta ez daukala beldurrik esateko, “neu naiz hemen heldua eta neu naiz zuen antolamendua gobernatzeko duena”. Gobernatzeko beharrezkoa da, baina gaur egun ez da mugarik jartzen. Mugekin alde batetik bestera joan gara: lehen autoritarismoan geunden eta orain beste aldera joan gara; autoritatea dabehar dena. Helduok bitartekariak

gara, eta beraz, ondorengo belaunaldiaren guraso gara, nahiz eta seme-alabarik izan ez, eta hori onartu egin behar dugu. Hori onartzen ez badugu, 50 urterekin ume izaten jarraituko dugu (zentzu ahulean).

Pertsona baten nortasunaren eraikuntzan 0-6 etapak zer-nola-ko garrantzia duen erakutsi digu psikologiak. Gauza bera esan liteke literaturaz? Hau da, literaturaren hastapenek, 0-6 urte bitarteko esperientzia literarioak, sormenari begira zutabeak ezartzen dituela esan liteke?

0-6 urte bitarteko garaia oinarrizkoa da, horrek ez du esan nahi, ordea, hor gertatzen dena erabakigarria denik. Ikasten den guztia desikas daiteke gauza berri bat ikasteko eta ohitura eta kultura berriak sortzeko, horregatik sinisten dut hezkuntzan. 0-6an umeak ez du informazioa behar, umeak pertsona heldua behar du, eta entzuna, babestua eta maitatua sentitu behar du. Eta jolastu egin behar du. Haur txikia berehala konturatuko da hizkuntzarekin jolas egin daitekeela: “krak” entzuten duenean poz-pozik jartzen da, “krik-krak, banoa eta banator, krik-krak krik-krak, banoa eta banator”, bat-batean asmatu dudana poesia honekin haurrak heldua gertu sentituko du eta jolas egingo du. Eta hori gorputzarekin eta antzerkiarekin lotzen badugu, ikaragarritzko balioa hartuko du.

Antzerkia ere baliabide aparta dugu eskolan, baina gaur egun kurtso bukaeran gurasoei egiteko ikuskizun bilakatu dugu, eta ez da hori! Horra helduko gara heltzen bagara! Eskolak egin behar duena da antzerkia egitera jolastu; idazle izatera jolastu; kontalari izatera jolastu; zientzialari izatera jolastu; biologo izatera jolastu; ile-apaintzaile izatera jolastu; hori bermatu behar du eskolak. Eta horren bitartez goaz pertsona izaten ikasten; besteekin bizitzen ikasten; mundua irakurtzen eta mundua ulertzen ikasten.

Sormena jolasarekin lotzen duzu zuk... bada sormena neurtu eta lehiatu al liteke?

Sormenari ere kendu behar diogu kutsu lehiakor amerikano guaia. Garbigailutik pasa behar dugu sormen hitza. Sormena gertatzen diren arazoei irtenbidea ematea edo oraindik egin gabeko gauzen aurrean jartzea da, bizitzak eskaintzen dizkigun erronkei aurre egiteko behar dugun baliabidea da. Jolas bat da: *daiteke*-ra jolastea da. Etenik gabe egon gaitezke *daiteke* horretan. Jolasaren zentzuan bultzatu behar dugu sormena, orduan ikusten baitugu “ah, sortzen ari naiz, ez da hain zaila”. Sormenari kendu egin behar diogu argazkian ateratze hori, eta lehia kutsua ere bai. Ipuin lehiaketak eta marrazki lehiaketak antolatzen ditugu, baina lehiaketak kendu egin behar dira umeen artetik, hori antigoalekoa da, eta txarrerako. Esan mesedez, herri guztietako zinegotzietan, ipuin lehiaketak antigoalekoak direla, eta kentzeko. Horrek ez du sormena bultzatzen; jarri tailerrak.

Niretzat sormena bizi-jarrera bat da: “Nik zer egin dezaket?”. Baina, oro har, uste dut, pentsamendu sortzailea lo dagoela, erabiltzen ez dena lokartu egiten baita. Eta ez haurren kasuan soilik, helduok, eta bereziki irakasle eta bitartekariok pentsamendu sortzailea erne eduki behar dugu. Ez badaukagu pentsamendu sortzailea aktibatuta, jasotzaile huts izaten bukatzen dugu, delegatu egiten dugu, eta azkenean, besteen mende geratzen gara. Gaur egun, estimuluak kendu egin behar ditugu pentsamendu sortzailea erne mantentzeko. Duela 30-40 urte pizgarriak jarri behar ziren sormena aktibatuzko; orain kontrako momentuan gaude: pizgarriak kendu egin behar ditugu pentsamendu sortzailea aktibatuzko.

Aldarrikatzen duzun pentsamendu sortzaile horren lokartzeaz eta pentsamendu bakarraren gailentzeaz diharduzu idatzi berri duzun *Ataria* zientzia fikziozko liburuan. Errealitatetik ihes egiteko premia izan duzu, hain justu, eskoletako errealitatea kontatzeko?

Mundua hain da konplexua, distantzia bat ezarri behar duzula kontatzeko. Zientzia fikzioa da azken batean, gaur

“Eskolak egin behar duena da antzerkia egitera jolastu; idazle izatera jolastu; kontalari izatera jolastu; zientzialari izatera jolastu; biologo izatera jolastu; ile-apaintzaile izatera jolastu; hori bermatu behar du eskolak. Eta horren bitartez goaz pertsona izaten ikasten; besteekin bizitzen ikasten; mundua irakurtzen eta mundua ulertzen ikasten”

“Umeari ezin diogu tradizioa ukatu, ezin diogu informazioa ukatu, bera ere bizi dugun munduaren zati bat baita. Haurrak jakin behar du zein kulturatatik gatozen, non gauden, zer esan duten besteek...”



egun ikusten ditugun fenomenoak esajeratzea eta fikzionatzea. Nik ikusi eta sumatu egiten dut pentsamendu bakarrerantz goazela. Eta pentsamendu bakarra pertsona batzuek, gobernu batzuek, indar batzuek, sortzen dute. Pentsamendu bakarra indarra hartzen ari da, eta hori guztiok egunero nabari dugu: “Zenbat egin dut nik gaur neuretik?” Ondorengo belaunaldien guraso naizen aldetik, badaukat zerbait esateko beharra, sentitu egiten dut behar hori. 30 urte daramatzat gauza hauetan, beldur eta lotsa asko kendu ditut, eta kezkatzen nauten gauzak esan egin behar ditudala pentsatzen dudanean, esan egiten ditut. Badoa mundu bat, sukaldean txapa gainean arropa lehortzen, ama irratia jarrita josten eta ni etxeko lanak egiten, periodiko paperaren gainean koaderno jarrita... mundu hori joan egin da, baina nik hori nire barruan daukat, eta kontatu egin behar dut.

Idazle-lana beti horrela bizi izan duzu, esateko behar horretatik, edo hasierako bulkadak beste batzuk ziren?

Ni oso lotsatia nintzen, eta *letxetxarra* nuela esaten zidaten. Ez zen hori, bulkada handia neukan eta erraz betetzen nituen orriak. Nire eskolako

kidea hasterako, nik orria beteta neukan. Baina inork ez zuen hori ikusten balio bezala.

Aitak Markinako banda munizipalean jotzen zuen, belarri ona zeukan eta solfeo pixka bat erakutsi zioten. Musika zeukan bere barnean eta nire etxeko sukaldean ikasi dut dantzatzeko, kantuan, duoak egiten... Nire ama jostuna izan da, eta nik ama ikusi dut etxeko sukaldean, irratia itzali, Aitaren egin, paketeak egiteko paper marroia mahai gainean jarri eta lehenengo patroiak egiten eta gero tela mozten, gero albaintzen, probatzen eta josten... Hor ikusi nuen egin egiten direla gauzak. Ama andreei neurriak hartzen ikusten nuen, udaberriaren etortzen ziren asko Santiagotan izaten zirelako jaiak eta ordurako soinekoa egitera. Denetariko emakumeak etortzen ziren, lepa okerrak, argalak, lodiak... eta guztiei neurria egiten zien soinekoa.

Aitaren musikarekin eta amaren eginarekin hazi naiz ni. Eta, gero, bidean irakasle onak izan ditut. Maistra frankista zen, *¡Viva España!* ere kantatzen nuen berarekin, baina gauza asko erakutsi zizkigun, diziplina, esate baterako. Ondoren, Iñaki Mendiguren eta Jexux Garmendia izan nituen Eskoriatzako

Irakasle Eskolako irakasle. Tertuliak egiten genituen Jexuxekin, ikaragarri irakurri genuen. Iñakirekin euskal literatura irakurri eta lantzen genuen, eta nobela bat idatzi beharra izan genuen. Orduan ez zegoen Internetik, eta nire lagunek liburuetatik kopia eta itzuli zuten, eta nik, berriz, gozatu egin nuen idazten. Nobela hura izan zen *Jostorratza eta haria*-ren lehendabiziko hazia. Bitartekariak eta irakasleak, niretzat, oso pertsona inportanteak izan dira.

Irudikatu duzun garai haietatik hona, liburuaren balioa ere aldatu da. Lehen gutxi izanagatik, balioa ematen zieten familiek liburuari. Orain, gutzia eskura dugun honetan, familia askotan badaude liburuak egon, baina beste familia askotan ez dago apenas libururik. Irakaslea izango da haur horientzako liburuetara iristeko bitartekaria.

Horrelako kasu asko ikusten ditut. Baina hor, berriro ere, pentsamendu sortzailea behar dugu irakasle bezala. “Bale, ez daukagu libururik, baina zer daukagu?” Eskoletan esaten ari naiz: umeen urtebetetze eguna denean, pastela eraman beharrean (ze alergia bat ez denean bestea da...), nahaste horiek saihesten laguntzen du liburu bat eramateak. Egin liburuaren zerrenda

bat urtero, eta bakoitzak eraman dezala liburu bat. Adostutako gauza bat izan daiteke: pastel bat eraman beharrean liburua eraman. Irakasle batek argi baldin badauka irakurketa zergatik den garrantzitsua transmititu egingo die familiei. Eta gurasoek euren umeentzako gauzarik onena nahi dute. Fisikoki liburuak etxean eduki egin behar ditugu. Liburuak erosteko beldur hori kendu egin behar da. Begira kiroletan hasten direnean zapatiletan bakarrik zenbat gastatzen dugun! Zapatilak berehala gelditzen dira txikiak, liburuak ez dira inoiz txiki gelditzen, eta gainera oparitu egin ditzakegu, eta partekatu... Eta horrez gain, liburutegiak herri txikienetan ere badaude.

lazko urrian hainbat eragilek Azeptian antolatutako gure Sormenean hezi, kulturaren bizi jardunaldian izan zinen. Bertan zure ikuspegia eman zenuen eta oso kezkatuak agertu zinen kultur sormenaren transmisioaz. Ez dugu asmatzen euskal kultur sormena eskolan transmititzen?

Ez, eta gainera, ez da erraza. Etenik gabeko informazioa sartzen da, azkar, eta bizkorren sartzen dena pentsamendu bakarrarekin lotutako informazioa da, kontsumoarekin eta mendekotasunarekin loturikoa. Informazio erraz horrek gustuak markatzen dizkigu, non lan egin behar dugun, gure denbora librean zer egin behar dugun markatzen digu. Informazio horiek medio handietatik datoz, eta medioak gobernuek kontrolatzen dituzte. Medio horietatik sartzen den mundu horretako gauza batzuek euskara dute, baina % 99ak ez dauka euskararik. Gure gazteei hori sartzen zaie. Filtroa ez badugu landu txikitatik, galbahe lana egiten ez badute ikasi, hau da “eta nik zer nahi dut?” galdetzen ez badute ikasi, denbora guztian pentsamendu sortzaileraren antzekoak ez baldin badugu, 11-12 urteko gaztetxoak, irentsi egingo du Disney horrek esaten dion guztia, koloreek, hiru dimentsioek, mila estimulu bizkorrek eta abarrek harrapatu egiten dute umea eta joan da; bere aisialdia medioek eraman dute.

0-9 urte bitartean mundu sentsorial indartsu bero bat eskaini behar diegu umei. Gabezia handiak ikusten ditut alor horretan, gabezia afektiboak esate baterako, azkarregi goazelako: hau ez da pertsonaren erritmoa. Pertsonaren erritmoa bihotzak markatzen du eta bihotza hankekin doa, eta gu orain hegazkinean goaz. Horrek desoreka bat eragiten du, eta desoreka horretan daude ume asko. Gabezia hori aukera bezala hartu eta goazen mundua euskaraz erakustera, kanpotik hain erraz datorren mundu handi horren alternatiba bezala. Horretarako, lehenik goazen bitartekari gabiltzan helduok beldurrak kendu, elkartu, indartu eta ahalduntzera.

Kulturaren barruan, tradizioaz asko idatzi duzu. Oroimena eta irudimena bizilagun direla diozu, hau da, ez dugula sortzen hutsetik. Gure gizartean, ordea, badirudi tradizioarekin gatazka bat daukagula: batzuek bere horretan mantendu nahi dute; beste batzuek erabat baztertu nahi dute. Zer egin dezakegu tradizioarekin eskolan?

Iruditzen zait tradizioarekin ere penduluarena gertatu dela. Alde batetik bestera joan gara. Neu izan nintzen lehenengo tradizioa begiratu egin behar genuela esan zuena duela 15 bat urte. Bazirudien bekatua zela. Baina hortik, tradizioa ukatzera joan gara. Eta hori asmo ezkertiar bat izan arren, jokaera eskuindar bat da. Ezin dugu informazioa ukatu. Umeari jaten eman behar diogu, gauza desberdinak eman behar dizkiogu jaten, eta berdin literaturarekin ere, eta jaten ematen diogunarekin batera, izpiritu kritikoa lantzen joan behar dugu. Tradizioa erakutsi egin behar dugu, eta horrek ausardia eskatzen du. Umeari ezin diogu tradizioa ukatu, ezin diogu informazioa ukatu, bera ere bizi dugun munduaren zati bat baita. Haurrak jakin behar du zein kulturatatik gatozen, non gauden, zer esan duten besteek... Lehenengo tradizioa erakutsi eta ondoren kudeatu egin behar dugu informazio hori. Tertulietan egin behar ditugu umeekin, hitz egin... Zer aldatu da lehendik gaur egunera?

Ipuinean agertzen diren gauzen eta gaur eguneko artean, zer da berdina eta zer da desberdina? Umeei galdera inteligenteak eginez gero, umeek buruari eragin egiten diote eta batzuetan ustekabeko erantzun inteligenteak ematen dituzte.

Zeuk ere gatazka handia izan duzu Mari Xor tradiziozko maitagarri ipuinarekin; aitari aurre egiten dion neska ausartarena da. Saiakera bat eta album bat egin dituzu Mari Xor-en inguruan. Gainditu duzu gatazka?

35 urteko borroka izan dut Mari Xor-ekin, eta dagoeneko kendu zaizkit beldurrak eta hasi naiz umeekin tertulietan ipuina lantzen. Hasteko, azaltzen diet ipuin bat dela; pertsonok jana behar dugu gorputza elikatzeke; lagunak, bihotza elikatzeke; eta ipuinak eta fikzioa, arima elikatzeke. Hori antropologian ikasi nuen, eta neure lematzat daukat. Betidanik kontatu behar izan ditugu gezur sinesgarriak geure munduarekiko pertzepzioa (“Zer eragiten dit munduak?”) ulertzeko. Ipuina da, fikzioa, ez da egia, eta ulertu behar dugu zer esan nahi digun horrek, eta horretara jartzen ditugun umeak, ulertu egiten dute. 3. eta 4. mailakoekin egin daiteke dagoeneko hori, eta 5. eta 6. mailakoekin tertulietan fenomeno joaten dira. Tertulietan azaltzen diet iritzi guztiak direla onak, ez dagoela bat ona eta bestea txarra, eta arrazoi bat edo bi bilatu behar dituztela euren iritziari eusteko.

Tertulietan egiteko, lehenengo, bitartekariak ahaldundu egin behar du, nik heldu bezala, ezin dut haurren pare egon. Nik informazioa kudeatu behar dut, eta ausartu egin behar dut galdera inteligenteak egitera. Adibidez, galdetzen badiezu “neska eta mutilen inguruan, lehenengo ipuinetatik hona zer aldatu da nesken eta mutilen kasuan?”, “ipuinean agertzen da mutila dela maiorazkoa eta etxearen jabea, eta orain neskak ere badira etxe jabeak” esaten dute; edo, “ipuinean neska guztiak etxean agertzen dira, baina orain kalean ere lan egiten dute”. Umeei galdera inteligenteak egitera ausartu behar dugu.

ESPERIENTZIAK

'EUSLIDERRAK' EGITASMOA BERRIZEN

Hizkuntza ohitura berriak sustatzen

'Eusliderrak' egitasmoak dagoeneko hamarkada beteko ibilbidea egina du Berrizen. DBHko ikasleen artean hizkuntza ohitura berriak sustatzeko egitasmo honek ikasleei eurei eskaintzen die eragile izateko gidaritza edo lidergoa. Sustatzaileen arabera, egitasmo honi esker "hizkuntzen inguruko aurreiritzi batzuk aldatzea lortzen dute, ikasleek proiektuak garatzen ari diren bitartean euskaraz egiten dute, gaiarekiko sentimendu positiboak pizten dituzte, eta erabileraren datuek gora egiten dute".

Duela 10 urte sortu zuten Berrizen *Eusliderrak* egitasmoa. Berrizko Udalak sustatutako proiektua da. Udalak hasiera batean bertako langileekin aurrera eramandako dinamikari, Berriz BHI ikastetxea batu zitzaion. Azken urteetan AEK-k gidatzen du Eusliderrak programa, Udalak hala eskatuta. Aipatzen dutenez, "Ahize-AEK aitzindari izan delako egitasmo honetan". DBHko 3. mailako ikasleei zuzentzen zaizkie dinamikak eta zikloka antolatzen dituzte ikastaroak.

Hiru helburu nagusi ditu *Eusliderrak* egitasmoak. Alde batetik, hizkuntzaren garrantziari buruzko informazio esanguratsua ematea ikasleei eta horrekin batera, hizkuntzekiko jarrerak lantzea. Bigarrenik hizkuntza-lidergoa eta talde-lanaren kontzeptuak jorratzea –lidergoaz hitz egitean, berdinaren arteko lidergoa kontuan hartuta, beti ere—. Eta azkenik, eraldaketa sustatu eta hizkuntzari lotutako portaera berriak sortzea da hirugarren helburua.



Egitasmoan parte hartu zuten ikasle boluntarioek patata tortila txapelketa antolatu zuten.

Zikloka egiten dituzte ikastaroak eta ziklo bakoitzak ikasturte bat hartzen duela dio Maialen Begiristain AEK-ko koordinatzaileak eta *Eusliderrak* egitasmoa dinamizatzaileak. Ziklo bakoitzak hiru fase dituela gaineratzen du: "Lehenengo fasean, girotze kanpaina bat egiten dugu, ikastetxearen laguntzarekin; bigarren fasean aurrez aurreko hiru motibazio saio egiten ditugu ikasleekin; eta

hirugarren fasean ikasle boluntarioek proiektuak garatzen dituzte bikoteka edo talde txikitan".

Begiristainen ustez, girotze kanpaina "beharrezkoa" da ikastetxearen atxikimendua: "Partehartzaileen jakin-mina piztea izaten da helburua lehendabiziko saio hauetan. Guk materialak eramaten ditugu eskolara, eskuorriak, piruleta... Eta girotze saio honetan



beharrezkoa zaigu ikastetxearen laguntza helburuak betetzeko”.

Bigarren fasean aurrez aurreko hiru saio egiten dituzte ikasleekin. Saio horiek Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Sozialeko Sailarekin batera prestatu dituzte eta honako edukiak lantzen dituzte:

- Lehenengo saioa: aldaketa abiatzeko baldintzak jarri eta informazio esanguratsua emaiten zaie ikasleei, “haien portaerak aldatzen lagunduko duten faktoreak lantzeko”. Bigarren saioa bitartean etxerako lan “dibertigarri eta umoretsu” bat ematen zaie ikasleei, lehendabiziko saioko haria ez galtzeko.
- Bigarren saioa: aldaketa sustatzeko saioa izaten da. Ereduak eta baliabideak eskaintzen zaizkie ikasleei aldaketa egingarria dela ikustarazteko. Bigarren etxerako lan bat bidaltzen zaie hirugarren saiora bitartean egiteko.
- Hirugarren saioa: etxerako bidali zaien lanarekin feedback-a egiten dute eta landu dutena balioan jartzen dute.

Hiru saio horiek eta gero, ikasle boluntarioekin lan egiten dutela aipatzen du AEK-ko koordinatzaileak. “Zerrenda bat jartzen dugu gelan eta egitasmoarekin

jarraitu nahi duten ikasleek izena ematen dute”. Zerrendak jaso ondoren, beste hiru saio egiten dituzte, honako helburuarekin: “Ikasleak parte-hartzaile izatetik eragile aktibo bilakatzea”. Prozesu horretan ikasle boluntarioek bikoteka edo talde txikitik ekintza sozial bat eramaten dute aurrera. Begiristainek azaltzen duenez, “haien aisialditik gustuko dituzten ekintzak identifikatu eta ekitaldi batean aurkezten dituzte, betiere euskara oinarri hartuta. Lanketa horrekin lortzen dute beraiek euskaraz ondo pasatzea”.

Ekintza horrekin bukatzen dute ziklo bat. Baina egitasmoa ez da hor amaitzen. Koordinatzaileak kontatzen duenez, “2. zikloan, lidergoa indartzeko 3. DBHn Euslidersak izan direnak, hau da, boluntarioak izan direnak, izango dira DBH3ko ikasleen saioak dinamizatuko dituztenak. Prozesu honetan, DBHko 4. mailan dauden ikasleekin egiten dugu guk lan. Formazioa ematen diegu, baliabideak eskaintzen dizkiegu eta ikasleak eurak izaten dira DBH3koekin lan egiten dutenak etapa horretatik aurrera”.

Emaitzen neurketa eta balorazioa

Saio horietan guztietan emaitzak neurtu eta baloratu egiten dituzte Begiristainek azaltzen duenez, “etengabe”. Aurrez aurreko saioen aurretik eta ondoren galdetegiak betetzen dituzte ikasleek. “Batetik,

euskararen erabilera neurtzen da galdetegi horien bidez, eta bestetik, saio bakoitzaren asebetetze maila ere bai”, dio.

Lortu dituzten emaitzen artean hiru puntu nagusi azpimarratu ditu AEK-ko koordinatzaileak: “Hizkuntzen aurreiritzien gainean iritzi batzuk aldatzea lortzen dugu, batetik. Proiektuak garatzen ari diren bitartean euskaraz aritzen dira eta gaiarekiko sentimendu positiboak pizten ditugu, bigarrenaz. Eta azkenik, euskararen erabileraren datuek gora egiten dute prozesua eta gero”.

Ikasleak eurak gidari

Ikasleak eurak izaten dira egitasmo honetan protagonista eta parte-hartze modu horrek aparteko balioa ematen dio proiektuari. Maiora Altzerreka garaitarra Euslidersko partaidea izan zen Berrizko Institutuan ikasle zen garaian. Aipatzen duenez, “ikasleok euskaraz lan egiten duen beste ikasle talde bat eredu moduan ikusteak, eta gainera, dinamikek funtzionatzen dutela konturatzeak, ikasle gehiago euskaraz aritzera animatzen du”.

DBHko 3. mailan zegoenean ikasle boluntario modura parte hartu zuen egitasmoan eta kontatzen duenez, beraien urtean ginkana bat antolatuta zuten: “Jolas batzuk prestatu genituen institutuan zehar eta elkarrekin aritu ginen jolasean. Esperientzia polita da. Horrelako ekintzetan ikasleak asko animatzen dira eta harremanak sortzen dira ikasle nagusiagoen eta gazteagoen artean”.

DBHko 4. mailara pasatzean, Eusliders moduan aritu zen Altzerreka, beste hainbat ikaslerekin batera. Formakuntza bat jaso zuten eta hor jasotakoa ikasle gazteagoekin lantzen aritu ziren. Ikasleak kontatzen du konfiantzazko giro bat sortzen dela ikasleen artean eta egiten den lanaketaren balorazioa positiboa ikusten du: “Testuingurua ez da erraza. Berrizen nerabeen artean euskara ez da asko erabiltzen, eta euskaraz ere erlazionatu eta bizi gaitezkeela ikustarazteko balio digute saioek. Zentzu horretan, aurrerapausoak baliagarriak dira eta gainera, positiboa da ikasleok erabakitzen dugula parte hartu edo ez”.

EKARPENAK 1

BIRSORTU

Ireki ditu atea Birsorturen egoitzak



Urtarrilaren 24an ireki zituen atea Birsortuk Arrasaten, Hik Hasi egitasmo pedagogikoaren eta Emaus Gizarte Fundazioaren proiektu berriak. Materialen berrarabilpena eta jasangarritasuna oinarri hartuta, heziketa, sormena eta kultura uztartuko dituen txokoa izateko bokazioz jaio da Birsortu.

Hainbat ikastetxetako hezitzaileak, zenbait enpresatako ordezkariak, Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea eta Maitane Muñoz Garapen Komunitarioko zinegotzia, Debagoienako Mankomunitateko ordezkariak eta hainbat herritar izan ziren Birsorturen atea zeharkatu eta barruan zegoena ikusten lehenak. Enpresatan balio ez dieten, akatsak dituzten eta zaborretara bota behar dituzten hainbat material ikusi zuten Emausen Arrasateko eraikinean; sailkatuta eta txukunduta, ikastetxeetara doan eramateko prest. Horrela, materiala berrerabiltzeko aukera berri bat sortu da. Eta horrek beste aukera berri bat ere ekarriko du:

sormena lantzea, esperimentatzea eta ikertzea. Azken batean, hainbat enpresatik jaso den birziklatutako material anitza eskolen eskura jarri da, haurrek esperimentatu, manipulatu eta beste erabilpen bat eman diezaiozten. Geletara sartu eta puzzleak eta haurrei zuzendutako material egituratua eduki beharrean, industriatik akatsak dituzten edo soberan dituzten materialak izango dituzte.

Mikel Agirrezabala Hik Hasiko formazio arduraduna eta Sheila Padrones Emauseko hezkuntza teknikaria dira Birsorturen arduradunak eta bi aldeen arteko lankidetzaz gain, proiektua aurrera eramateko izan duten laguntza eta harrera azpima-



rratu dituzte: “Enpresen aldetik oso erantzun positiboa izaten ari gara eta oso eskertuta gaude. Aurrerantzean lankidetzaz horretan sendotzen eta sarezen jarraitzeko asmoa dugu, material eskaintza ahalik eta zabalena eta anitzena izan dadin”. Enpresez gain, HUHEZIren lankidetzaz ere izan du Birsortuk. Bestalde, proiektua aurrera ateratzeko eta bideragarri egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik jaso duten babes nabarmendu dute arduradunek.

Ikastetxeak ere parte hartzeko gogoz agertu direla gaineratu dute. Momentuz Debagoienako ikastetxeek eta iaz Birsorturen esperientzia pilotuan parte hartu zuten 13 ikastetxeek edukiko dute asteazken arratsaldero Birsortura hurbiltzeko aukera. “Edonola ere, gure asmoa hedatzea eta gainerako ikastetxeei ere irekitzea da, bailara honetatik Gipuzkoara zabaltzea eta handik Euskal Herrira”, gaineratu du Agirrezabalak.

Hilean behin ikastaroak eta tailerrak antolatuko dituzte irakasleentzat, Birsortun egongo den materiala lantzeko ideia eta modu berriak aztertzeko. Zentzu horretan, inaugurazio ekitaldian Itsaso Pagoaga Arrasateko Olgeta jostailu dendako kideak zenbait material hartu eta gardenki baten gainean jarritz askotariko gauzak egin daitezkeela erakutsi zuen.

Aurrera begira kultur etxeei, zaharren egoitzei eta beste hainbat eragileri ere atea irekitzeko xedea dute. Sormena eta berrerabilitako objektuen ikerketa ardatz hartuta, eragile kultural, pedagogiko eta jasangarria izan nahi du Birsortuk. Proiektuari buruzko xehetasunak daude *hik hasiren* 243. zenbakian argitaratutako erreportajearen.



EKARPENAK 2

'KAFFKA' ANTZEZLANA

Nerabeen metamorfosia kontrolatu nahian

Käffka-eremuetan kokatu ditu Kamikaz antzerki-kolektiboak 2049. urteko nerabeak. Emoziorik gabeko gizarte batek nerabeen pasioak eta bulkadak kontrolatzeko sorturiko eremu horietako batean, elkar ezagutuko dute Lirian eta Orion neska gazteek, eta euren amodio-historia bizi ahal izateko bidea bilatuko dute. Lesbianismoa ikusgarri egiteko eta aniztasun afektibo-sexuala lantzeko tresna gisa ere sortu dute antzezlan hezitzaile hau Amancay Gaztañagak, Erika Olaizolak eta Miren Gaztañagak, Gehitu LGTB elkartearen eskariz. Edurne Azkarate, Amaia Irazabal, Iraia Elias, Oier Guillan eta Mikel Ibarguren aktoreek taularatzen dute. Urtebeteko ibilbidea egin du dagoeneko.



2049. urtera garamatza *Käffka* antzezlanak. Gris platinoa eta zuri nuklearra dira nagusi oholtzan. Estetika futuristak, tekno musikak, koloreek, robot itxurak eta eskailera metalikoek etorkizunera garamatzate, pasioak lekurik ez daukan gizarte berri batera. Urruneko eszenak dira, agidanez, baina gaur-gaurko gaia dute jopuntuan: emozioak, askatasuna, maitasuna, nor izatea... Nerabezaroak barnean biltzen dituen gatazka eta korapiloak harilkatzen ditu Kamikaz kolektiboaren *Käffka* antzezlanak.

Urtebeteko ibilbidea egin du dagoeneko Amancay Gaztañagak, Miren Gaztañagak eta Erika Olaizolak osatzen duten kolektiboaren antzezlanak, baina data berriak dituzte oraindik 2020. urte honetarako, eta *Käffka* antzezlanak azaleratzen dituen


kezka eta hausnarketak ahalik eta nerabe gehienengana iritsarazteko helburuarekin jarraitzen dute egileek, abiapuntuan eta jomugan nerabeak — eta aurrenerabeak — baititu Kamikaz kolektiboaren obra hezitzaile honek.

Izenburuak iradokitzen duen bezalaxe, Franz Kafkaren *Metamorfosia* lanetik gertu dago *Käffka* antzezlanak, nahiz eta mende oso batek baino gehiagok bereizten dituzten bi sorkuntza-lanak. “Gu Franz Kafkaren oso jarraitzaileak gara — azaldu zion Amancay Gaztañagak *Gara* egunkariari —, eta nerabezaroa metamorfosi ikaragarria denez, nik behintzat horrela bizi izan nuen, hitz-joko hori egitea erabaki genuen”. *Käffka-eremuak* kontrol-eremuak dira, antzezlanak irudikatzen duen urtean sistemak nerabeak kontrolatu ahal izateko erabiliko

dituen instituzioak, hain zuzen ere. “Nerabezaroa deskontrol-etapa bat denez, etorkizun horretan, Käffka-eremuak sortuko dituzte, nerabezaroa pasatzeko instituzio handiak. Gazteak eremu horietatik ateratzen direnean, gizarte kontrolatu eta desberdin batera doaz”.

2049. urteko gizartea oso kontrolatua eta neurtua irudikatzen dute egileek; uste dute ordenak garrantzi handia izango duela, eta irudikatzen dute herritarrek pasioak eta haserreak kudeatzeko zailtasunak izango dituztela. Pasioak lekurik ez daukan gizartea da 2049koa, antzezlanean entzun daitekeen bezala. “Pasioak ekartzen dituen ausardia eta kaosa ekidin nahian sortu dira Käffka-eremuak”, dio pertsonaia batek. Etorkizun horretan, Amancay Gaztañagak aurkezturiko kontrol-eremu horretan, elkar ezagutuko dute Lirian eta Orion neska gazteek, eta elkarrekin maiteminduko dira. Bai Lirianek eta baita Orionek ere naturaltasunez eta askatasunez bizi dute euren arteko maitasuna, baina gizarteak ez. “Gizartea da arazo; gizartea bera da gatazka”.

Lesbianismoa modu baikorrean bizi dute Lirianek eta Orionek, horixe baitzen Gehitu LGTB elkarteak Kamikaz kolektiboari egin zion eskakizuna, bi neska gazteren arteko amodio-harremana “naturaltasunez eta askatasunez” taularatzea. Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Elkartearen enkarguz egin du Kamikazek Käffka obra, eta, ibilbidean zehar, Ortzadar LGTB elkarteak ere batu zaio ekoizpenari. Gehituk *Harrotasunaren Antzerkia* izeneko programa bat dauka haur eta nerabeentzat, gay eta lesbianen inguruko gaiei buruzko antzerki didaktikoak egiteko. Baina ohartu ziren programa horren barruan ez zutela sekula lesbianismoa ikusgarri egiten zuen antzezlanik ekoizti, eta lan horri ekin zion, Gehituk kezka baitzeukan lesbianismoa gaur egun oraindik ez delako behar bezain ikusgarri gure gizartean: “Lesbianismoaren eremuan lan egiten dugun emakumeok kezkatzen gaituen gai bat zera da: lesbianen agerikotasunaren defizita, izan ere,



iruditzen zaigu, gayen presentzia publikoa nabarmenagoa eta onartuagoa den neurrian, gehiago mugatzen dela emakume lesbianaren existentziaren agerikotasuna. Eta, are gehiago, gure garapenaren adin goiztiarrenetan, nerabeek eta aurrenerabeek erreferentzia heteropatriarkal mordoia jasotzen dute zinemaren eta telebistaren bidez”.

Amancay Gaztañaga, Erika Olaizola eta Miren Gaztañaga, beraz, kezka horretatik hasi ziren nerabeentzako antzezlan sortzen eta idazten, eta, ondoren, Edurne Azkarate, Amaia Irazabal, Iraia Elias, Oier Guillan eta Mikel Ibarguren aktoreekin osatu dute taldea. Erika Olaizola eta Amancay Gaztañaga dira zuzendariak. Gehituren enkarguari erantzuteko, zientzia fikziora jo zuten egileek, baliabide bikaina baita etorkizun distopiko bat gaur-gaurko arazoak kontatzeko; bi emakumezko-pertsonaia sendo sortu zituzten, maitasun-harremana naturaltasunez kontatzeko. Protagonista gaztetxoek gain, badira pertsonaia helduak ere: kinkilari misteriotsu bat, Käffka-eremuko andereño arduraduna, kanpotik etorritako ikuskari beldurgarria...

Nerabeak erdigunean

Lesbianismoa eta nerabeak uztartzeko eskaria zuen Kamikaz kolektiboak; izan ere, antzerkian ere, nerabeak ahaztuak daude, Gaztañagaren iritziz: “Nerabeak ahaztuta uzten dira beti, baita antzerkian ere. Haurrentzako eta helduentzako antzerkia badago, baina tartean daudenentzat, ez. Garrantzitsua da etapa horri

zuzentzen diogun begirada”. Gehiturentzat ere garrantzitsua zen lesbianismoa ikusgarri egingo zuen antzezlan 12-17 urte bitarteko gaztetxoek zuzentzea nerabezaroa “metamorfosi-etapa bat” delako, “non gure ni propioa eraiki behar dugun. Beraz, garrantzitsua da nerabeei lesbianismoaren ikuspegi positiboa azaltzea, gure gizartean estereotipo negatiboak jasaten jarraitzen baitute”. Gehitukoek nerabeei erreferenteak eman nahi dizkiete, lehenetsunezkotzat baitute lesbianen errealitatearen ikusgarritasunean aurrerantz egitea, “normalki ezkutatua baitago gizartearentzat oro har eta baita emakume lesbianentzat beretzat ere, eta emakume horiek nerabeak nahiz helduak izan, erreferentzia erakargarri, positibo eta onbidezkoak aurkitu gabe jarraitzen baitute gure gizarte heteropatriarkal honetan”.

Nerabeak antzezlan 12-17 urte bitarteko ikusi ostean erreferentzia berri positiboekin etxeratzea lortu nahi dute sortzaileek eta ekoizleek, baina, era berean, eta Amancay Gaztañagak *Berria* egunkariari esan zion eran, gustatuko litzaieke gazteek buruan hainbat hausnarketa eta galdera dituztela ateratzea: “Gai honekin, garrantzitsua iruditzen zitzaigun, emozionalki konektatzeaz gain, etxera joandakoan nerabeek buruari buelta batzuk ematea, eta esatea: ‘Ni nola sentitzen naiz bizitza beste era batera ikusten duten pertsonen aurrean?’ Haustura bat egotea nahi genuen, eta haustura horretan arrazoiak ere bere lekua izatea”.

Egileek uste dute lesbianismotik

harago, maitasun erromantikoak ezarritako arauetatik urrun dagoen maitasun-harreman zintzoa publiko osoarentzat aberasgarria dela, helburua maitasunari lotutako gaiei buruzko hausnarketak egitea baita, irudi estereotipuetatik urruntzea eta harreman positiboak azaltzea, ohiko maitasun erromantikoari kontrajarriz: “Proiektu hau interesgarria da LGTBI komunitatearentzat eta talde feministentzat, nahiz ikasgelen barnean, nahiz kanpoan aniztasun afektibo-sexuala lantzeko tresnak bilatzen dituen hezkuntza-komunitatearentzat ere”. Amancay Gaztañagak dio, amodio-harremana baliatzen dutela baita ere nerabeei zuzenean eragiten dieten bestelako gai batzuk eszenaren erdigunera ekartzeko: “Gazteek sentitzen duten askatasun falta eta entzunak ez izatearen sentsazioa daude erdigunean. Nerabearoa oso erabaki potoloak hartu behar dituzun garaia da; bizitzan zure bidea zein izango den erabaki behar duzu, eta, aldi berean, deskontrol handiko etapa bat da”.

Eszenen erritmoan, pertsonaien hizkeran, musikan, eszenografiaren soiltasunean... hainbat gaketan antzematen da nerabeak oso kontuan dituen antzezlan dela *Käffka*. “Nerabeak oso kontuan izan ditugu kontatzeko moduan: erritmo handia

bilatu dugu, testu gutxi dago mezua zuzenagoa izateko, jolas asko daukan antzezlan bat da...” Horrela, Kamikaz kolektiboari eta Gehituri gustatuko litzaieke nerabeak euren kabuz antzerkira joatea: “badirudi derrigortuta bakarrik joan daitezkeela antzerkira, eskolatik edo. Nahi dugu nerabeak antzerkira joatera animatzea, bakarrik edo kuadrillan, beraienez baitago eginda lan hau”.

Nerabearoa erdigunean daukan antzezlan izan arren, aurrenerabeez eta nerabeez gain, publiko orokorrari zuzenduriko antzezlan da, ikuspegi hezitzailea adin guztietako jendeari zabaldu nahi baitiote sortzaileek. “Helduek ere oso ondo pasatzen dute”, ziurtatu du Gaztañagak. Urtebete honetan, Bilboko Pabellon 6 aretoan estreinatu zutenetik, nerabeak hezteko interesa erakutsi duten ikastetxe, kultura-zentro eta gune alternatiboetan antzeztu dute *Käffka*. “Hunkituta geratzen da jendea, eta hori beti da pozgarria —dio Gaztañagak—. Esan digute barre egin dutela, negar egin dutela, ustez gairidituta zegoen gatazka batez jabetu direla, eta abar.” Agus Perez *Berria* egunkariko kritikariak ere ikuspuntu zabala nabarmendu zuen antzezlan hezitzailea nabarmentzeko idatzi zuen artikuluan: “Aretoa leporaino bete duten ikusle helduek eta askoz gazteagoek gozamen handia

Informazioa:

Izenburua Käffka

Egileak Kamikaz Kolektiboa (Erika Olaizola, Amancay Gaztañaga eta Miren Gaztañaga).

Zuzendariak: Erika Olaizola eta Amancay Gaztañaga.

Aktoreak: Edurne Azkarate, Amaia Irazabal, Iraia Elias, Oier Guillan eta Mikel Iburguren.

Ekoizpena: Gehitu eta Ortzadar LGTB elkarteak.

Nori zuzendua: nerabeei eta aurrenerabeei.

Helburu pedagogikoa: nerabeei mahai gainean jartzea nortasunaren eraikuntzari, askatasunari eta batez ere maitasunari buruzko hausnarketak, irudi estereotipuetatik urrunduz bi emakumezko pertsonaia sendoren arteko harreman positiboa eta betea azalduz eta ohiko maitasun erromantikoarekin kontrajarriz.

Webgunea: www.kamikazkolektiboa.com

www.kamikazkolektiboa.com

Harremanetarako:

kamikazkolektiboa@gmail.com

hartu dute egiaren bilaketaz, bizitza librearen abenturaz eta sexu berekoen arteko amodioaz hitz egiten duen lan suabe, baikor eta aurreratu honekin”.



**KRISTAU
ESKOLA**

OINARRIAK JARRIZ.
EZAGUTZAK EZARRIZ.



Ion Aramendi. Kazetaria, aurkezlea eta Kristau Eskolako ikasle ohia.

**“Enpatiarik gabe ez nintzateke
ni neu izango. Egunero landu
beharreko zerbait da”.**

*Hezkuntza eredu bat aukeratzea ez da
aukeraketa simple bat, askoz gehiago da.
Aukeratu zure ikastetxea hemen:
kristaueskola.eus*

Matrikulazioa:
Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra arte.

EKARPENAK 3

XUA GURASOEKIN ETXERA

Xuaren motxilaren zama arintzeko festa, 3 urte bete dituen egunean

Urtarrilaren 19an 3 urte bete ditu Xuak, Patxi Uranga eta Hik Hasiko kide Olatz Lasagabasterren alabak, eta Picassenteko espetxea utzi du, haren amarekin bizitzeko aukera ukatzen baitio Espainiako espetxe legeak. Xuari zorion festa egin diote Donostian.



Foku

Urtarrilaren 19an Xuak, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga euskal presoaren alabak, 3 urte bete zituen. Hark Picassenteko (Valentzia) espetxea uzten zuen egunean, 600 kilometrora Donostiako Atano frontoian zorion-festa egin zioten Sare elkarteak eta Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenak: *Motxilak gora!* lemapean. Jaia eta aldarrikapena batu zituen festak: Xua

eta beste haur motxiladunen zama arintzeko premia ikusarazi baitzuten parte hartzaileek, Xua bezala ehundik gora ume baitira espetxe politika eta dispersioa sufritzen dutenak, eta beraz, Xuak guraso biak ikusteko egin beharko duen bide luzea saihesteko, Patxi eta Olatz Euskal Herrira ekartzeko eskaera egin zuten parte hartzaileek Donostiako pilotalekuan. Xuaren ama Olatz Lasagabaster Hik Hasiko kidea izaki,

ekitaldian parte hartu zuten egitasmo pedagogikoko kideek ere familiari babesa eta maitasuna erakusteko.

Ekitaldi goxoa antolatu zuten Sarek eta Xua Gurasoekin etxera elkarteak: Motxila handi-handi bat bizkarrean zuela sartu zen Joxe Mari Agirretxe *Porrotx* ehunka pertsonak betetzen zuten Atano frontoira. Xua hemendik aurrera haur motxiladun bihurtuko da eta gurasoak bisitatzeko egin beharko dituen

kilometro luzeak zeinen astunak diren irudikatu zuen Porrotxek. Oihana Maritorea *Mixu* pailazoak Orioko eta Antiguako dantzariak, eta hainbat haur motxiladunek lagundu zioten Porrotxi motxila hori hustutzen eta zama arintzen. “Amorrua”, “pena”, “nekea” eta “etsipena” atera zituzten haurrek Porrotxen motxilatik, dispertsioak eragiten dituen sentimenduak guztiak, eta koloretako puxikak sartu zituzten ondotik Hik Hasiko kideek motxila bizipozez eta baikortasunez betetzeko. Puxika morearekin familiaren babesa irudikatu nahi izan zuten: “amonaren babesa, maitasuna eta heziketa izango ditu Xuak, Orioko aiton-amonen, osaba-izeben eta familiako gainerakoen babesarekin batera”. Puxika horiak sartu zituzten jarraian, hezitzaileen berotasunaren eta goxotasunaren lekuko: “Usurbilgo Udarregi ikastolako hezitzaileen, andereñoen eta maisuen zaintza izango du; hazten eta hezten lagunduko diote. Horrez gain, ikaskideen jolasa, alaitasuna eta jakin-mina izango ditu”, eta hori esatearekin batera puxika gorriak sartu zituzten. Eta azkenik, puxika berdeak: “Herritarren laguntza, elkartasuna eta heziketa ere izango ditu. Xua ez da bakarrik egongo, oso maitatua izango da herri osoan eta denon artean, elkarri lagunduz, hezten joango gara. Izan ere, denok gara hezitzaileak, hasi bizilagunetik eta alkateraino, gure eguneroko harremanetan, balioetan, bizitza ereduetan... hezten gara. Horrela, denon artean eta denok elkarri lagunduta ari gara egiten herri hobe bat; herri hezitzailea”. Balio horiekin beteta gelditu zen Porrotxen motxila.

102 haur ehunka kilometroko bidean Xuarekin batera gainerako haur motxiladunak gogoratu ziren festan. Guztira 102 dira gurasoetako bat edo biak ikusteko ehunka kilometro egin behar dituzten adin txikikoak Euskal Herrian. Sarek salatu zuenez, “espetxe politika hau erarik gordinenean bizi dutenak motxiladun haurrak dira”. Josu Txapartegi *Txapas* soinuak zutela, *Zorionak zuri* kantatuz amaitu zuten *Motxilak gora!* ekitaldia.



Foku



Foku



Noaua!

EKARPENAK 4

'HIZKUNTZAREKIN JOLASEAN' UNITATE DIDAKTIKOAK

Goazen jolastera... euskararekin!

Euskara arlo akademikoarekin lotzeko joera haustera datoz Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak sortutako 'Hizkuntzarekin jolasean' unitate didaktikoak. Ez da euskara ikasteko materiala, nork-nori-nork, ergatiboa eta atzizkiak erakusten dituen; aitzitik, euskararekin jolasteko materiala da. Euskara erabiltzeko eta euskaraz aritzeko proposamenak biltzen ditu, baina jolastuz, ondo pasaz eta umorez. *hizkuntzarekinjolasean.asmoz.org* webgunean daude edonoren eskura, doan eta erabilgarri.



Nora Alvarez Eusko Ikaskuntzako Asmoz fundaziokoa, Antton Telleria bideoen aurkezlea, Kike Amonarriz egitasmoaren zuzendaria eta unitateen egilea, Leire Ruiz de Angulo diseinatzailea eta Iñaki Zapirain aholkulari pedagogikoa eta unitateen egilea.

Gauza jakina da gure errealitate soziolinguistikoan ikasle askorentzat euskara esparru akademikoarekin eta erabilera formalarekin loturiko hizkuntza dela. Bada, *Hizkuntzarekin jolasean* unitatea didaktikoak horri buelta ematera datoz. Alegia, euskara jolasarekin eta umorearekin lotzen dute, euskaraz jolasteko proposamenak erakargarriak eta atseginak eginez. *Hizkuntzarekin jolasean* unitate didaktikoek ikasleen euskararen erabilera sustatu nahi dute, ezagutza linguistikoa hobetu eta hizkuntzarekiko atxikimendua sendotu.

Horretarako, materiala osatzen duten hiru unitateetan hizkuntzaren alderdi jostagarriak erakusten zaizkie ikasleei, hizkuntzarekin jolasteko aukera ematen dietelarik: hitzekin jolastean, hieroglifikoak asmatzen, txisteak

kontatzen eta hitz eta istorio berriak asmatzen jartzen ditu ikasleak.

Edukia eta euskarria, biak dira dinamikoak, biziak. Iñaki Zapirain aholkulari pedagogikoa eta unitateen egileak azaltzen duenez, “euskarri digitalean dagoen materiala denez, hori erabili beharko dute eta horregatik egin dugu webgune bizia eta erakargarria”. Denera hiru unitate didaktiko dira: *Mahai-jolasa*, *Sare sozialetan* eta *Txistealdia*. “Horietako bakoitzak hiru fase ditu. Hasierako fasean irakasleak gaia aurkezten du; bigarren fasean bi sekuentzia burutuko dituzte ikasleek; eta hirugarrenean erronka bat gauzatzeko ekintza egin beharko dute”, dio Zapirainek. Esate baterako, mahai-jolasaren unitate didaktikoan izango duten erronka mahai-jolas bat sortzea izango da. Horretarako, hainbat gauza erabaki

beharko dituzte: nola antolatu, nola puntuatu, nola banatu, nola jolas-tu... alegia, mahai-jolasaren arauak. Erromak iritsi aurretik, bigarren fasean bi sekuentzia landuko dituzte, eta horrek azken erronka egiten lagunduko die. Kasu honetan *hitze-kin jolasean* eta *hieroglifikoak* dira sekuentzia horiek. *Hitze-kin jolasean* sekuentzian hitzekin jolasteko hitzak behar direla konturatu dira, hitzak esploratu dituzte, hitz berriak sortu, hiztegia landu eta abar. Eta *hieroglifikoak* sekuentzian antzekoa: hieroglifikoak zer diren eta nola funtzionatzen duten ikastearekin batera, hieroglifikoak sortzen ikasiko dute.

Bigarren unitate didaktikoa *Sare sozialetan* izeneko da, eta hor erronka izango da hitz-jolasetan oinarritutako pieza umoretsuak sortzea, meme delakoak, eta ondoren, horiek sare sozialetan ipintzea. *Euskara mundiala da* eta *hizkuntzak imitatzen* sekuentzietan euskarazko esanahia eduki dezaketen beste hizkuntzetako hitzekin jolasteko dute, hitz berriak sortu eta beste hizkuntzak imitatu ere bai. Kike Amonarriz egitasmoaren zuzendariak eta unitateen egileak mota horretako jolasen adibideak ematen ditu, asko Txiskolan eta Mihiluzen erabilitakoak direla azpimarratuz: “Nola esaten da venezieraz ‘ondoloin’? Gondoloin. Nortzuk zarete? Ni Bea eta hau Sonia” (Nivea eta Ausonia).

Azkenik, hirugarren unitate didaktikoan, *Txistealdia* izenekoan, erronka txiste emanaldi bat antolatzea izango da. Horretarako, aurreko sekuentzietan txisteak kontatzen eta antzesten trebatuko dira. *Txisteka-misteka* eta *txoauaren ordua!* sekuentzietan txistearen erregistroa lantzen da eta horrekin batera txisteen egokitasuna, umorearen inguruko hausnarketa, erregistro aldaketa seriotik kalekora, hitanotik zukara, kontaketa onaren gakoak, txisteak kontatzeko trikimailuak eta abar. “Atal honetan lau gonbidatuk hartzen dute parte: Zuriñe Hildagok, Iker Galartzak, Idoia Torregeraik eta Julen Telleriak. Gustukuen dituzten txisteak kontatzen dituzte, asmatutakoak ere bai, txisteak kontatzeko trikimailuak erakutsi ere bai eta beste hamaika

gauza, beti umorez eta jolastuz”, dio Amonarrizek.

Gazteak inspirazio iturri

Gonbidatuak aukeratzekoan gazteentzat erreferenteak direnak aukeratu nahi zituztela aipatu dute egileek, eta horretarako, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako gazteei galdetu dietela. “Ume hauek zer ezagutzen duten jakin nahi genuen, guretzat ezagunak diren erreferenteak jartzeak ez baitu zentzurik”.

Halaxe aukeratu dute Antton Telleria EITBko aurkezlea unitate didaktikoetako bideoetako aurkezpen lanak egiteko. “Nire neurrira egindako lan bat izan da, nik berez baitut jolasean aritzeko joera. Izugarri gustatzen zait hizkuntzarekin eta hitzekin jolas egitea. Hizkuntzek gauza askotarako balio dute, besteak beste, sormena lantzeko eta jolasteko”.

Unitate bakoitzean sekuentziak eta erronkak planteatzen dira, beraz, eta horiek aurrera eramateko jarduerak. Eta irakasleentzako gida ere badago, jarduerak gauzatzeko argibide guztiak eta informazio osagarriarekin. Horrez gain, ikasleentzako lan-koordenatza ere badaude. Printzipioz bere osotasunean lantzeko pentsatuak eta prestatuak baldin badaude ere, jarduerak modu soltean egin daitezke beharren eta egokitasunaren arabera. “Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat sortu dugu materiala” dio Amonarrizek, “baina

DBHkoentza, Batxilergoentzat eta euskaltegiakoentzat ere egokia izan daiteke”.

Jolas horiek denak taldeleanan egiteko planteatuta daude, Zapiarainek azaltzen duen moduan: “Esate baterako, memeak egin behar dituztenean, aditu taldeetan banatzen dira eta lanak banatu egiten dituzte: grafista taldea grafismoaz arduratuko da; interpretazio taldea esketza egiteaz; grabaketa taldea grabatzeaz; beste batzuk sare sozialetan sartzeko plangintzaz...”. Eta hori guztia metodologia aktiboak erabiliz planteatu dute: “Garrantzitsua da lantzen dituzten edukiak barneratzea ikasleek eta, horretarako, egokiena metodologia aktiboak erabiltzea dela iruditzen zaigu. Hau da, eduki horiekin zerbait egitea, zerbait sortzea, eta horrela ikasten duten horri zentzua hartzen diote eta ikasketa bera esanguratsua goa bihurtzen da”.

Jolastuz ikasi. Haur txikien kasuan behin eta berriz esaten dena, haur koxkorragoekin ere egitea proposatzen dute egileek. “Azken finean, *ludolinguistika* edo *aisilinguistika* egin dugula esaten dut nik, –dio Amonarrizek– linguistika baina jolasarekin. Horixe baita nahi duguna: bai ikasleek eta baita irakasleek ere ongi pasatzea”. Eta mezu horri beste bat gehitzen dio: “materiala zabaltzea nahi dugu, denen eskura dago eta kopiatu daiteke, ondo kopiatuz gero. *Eman ta zabal zazu*, horixe da nahi duguna”.



Hizkuntzarekin jolasean unitate didaktikoen adibide bat.

GALDEIDAZU

NOLAKO ZIENTZIA BULTZATU NAHI DUGU NESKEK ETA EMAKUMEEK PARTE HARDEZATEN?

Otsailaren 11n Zientziako Emakume eta Nesken Nazioarteko Eguna ospatzen da eta gogoetarako baliatu nahi dugu abagunea. Beharbada, zu ere institutuan batxilergo humanistikoa hautatu zuen neska horietakoa izan zinen, matematika ez zenuelako gustuko.

Agian, batxilergo zientifiko-teknologikoa gainditu, eta ingeniartzaren bat ikasten hasi zinen, baina utzi egin behar izan zenuen zailegia zelako.

Edota informatikan lizentziaduna izatea lortu zenuen, hainbat artikululargitratzea eta are doktoretza-ikasketak burutzea ere bai, baina, urteek aurrera egin ahala, ez duzu ikerkuntzan zure gizonetzko kideek bezain ibilbide oparoa egiterik lortu. Zergatik ote?

Zientzia parekidearen bila

Aurrekoak bezalako egoerak gurean oraindik ere nahiko arruntak diren arren, gero eta arreta handiagoa ipintzen zaie neskek eta emakumeek zientziaren alorrean aurre egin beharreko alboratzeei, estereotipoei eta oztopoei. Horren adibide da Nazio Batuen Erakundeak otsailaren 11n ospatzen duen Zientziako Emakume eta Nesken Nazioarteko Eguna, 2016an abian jarri zena, zientzian emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna lortzeko helburuz.



SORKIN

Jakintzen Iraultegia




“Beharrezkoa al da oraino halako ekimenak bultzatzea?”, galdetuko dio batek baino gehiagok bere buruari. Datuei erreparatuta, badirudi baietz: ikerkuntza askok erakutsi dute familiak, irakasleek eta inguruak modu sexistan baldintzatzen dutela gure ikasketen hautua. Eta, halaber, karrera profesionalean aurrera egiteko zailtasun handiagoa dutela emakumeek, baldintza-berdintasuna ustezkoa dela eta zientzia eta teknologiarekin lotutako zenbait alorretan oraindik ere gutxiago balioetsi ohi direla emakumeen gaitasunak eta lana, gizonen parekoak izanagatik.

Agerikoa da zerbait egin beharra dagoela egoera hori konpontzeko, eta hasierako pausoa izan daiteke egun jakin baten bueltan jendartearen sentikortzeko eta mobilizatzeko jarduerak antolatzea. Otsailaren 11n munduan barrena ospatzen diren jarduerak aztertzean, ikusi dugu gehienak dibulgazio hutsezkoak direla eta batez ere hainbat garaitako emakume zientzialariak ikusgai bihurtzea dutela helburu. Ulertzekoa da, izan ere, iraganeko emakume zientzialari gehienek oztopo latzak gainditu behar izan zituzten beren zientzia-jardunean (goi-mailako ikasketetan sarbide mugatu edo debekatua; klandestinoki lan egin beharra, usu ezizenak erabiliz; beren lana gutxietsia izatea akademiaren partetik; edo

gizonezko lankideak zein senideak haien merituez jabetzea, kasurako), eta zailtasun horiek gorabehera, lortu zuten ez soilik zientzian parte hartzea, baizik eta baita ekarpen esanguratsuak egitea ere. Emakume zientzialari horiek merezi dute, ezbairik gabe, guztion aitortza, miresmena eta ikusgaitasuna lortzeko aukera. Argi dago, halaber, emakume horiek itzalean egon izanak erreferenteak kentzen dizkiela zientzian aritu nahi luketen neska eta emakumeei, eta estereotipoak indartzen dituela.

Haatik, Sorkin elkarteko kideok uste dugu pauso bat harago joan beharra dagoela, teknozientzia parekideak lortuko baditugu. Izan ere, hainbat arrisku ikusten dizkiogu otsailaren 11ren inguruan orain arte antolatu diren dibulgaziozko jarduerari. Arrisku horietako lehena da emakume zientzialariak indibidualtasun eta salbuesenezko ikuspegitik egitea ikusgai: emakume zientzialari apartekoei buruz soilik hitz egiteak (ezohiko inteligentzia izan zuten emakumeak, lorpen ia-ia heroikoak egin zituztenak beren testuingurua kontuan izanik) pentsarazi diezaguke gu bezalako neska eta emakume “normalak” ez garela gai izango sekula halakorik egiteko, eta, beraz, zertarako saiatu. Gainera, zientzialari handiak aipatzean azpimarratu ohi den indibidualtasun horren kontrara, zientzialari horietako hainbatek, Mary Somerville matematikari eta astronomoak, esaterako, azpimarratu zuten zientziako aurkikuntzak pertsona askoren epe luzeko lan partekatua ordaina direla; norbanakoen talentu eta jenioaren irudiari garrantzia kendu zioten, eta komunitate zientifikoari eman, zientziaren oinarrian dagoen kolektibitateari, alegia.

Bigarren arriskua lehena baino zailagoa da antzemateko. Ahaleginak zientziaren alorreko estamentu guztietan emakumeak % 50 izan daitezen lortzera bideratuz gero, arriskua dago oinarritzko galdera bat alboratzeko: gaur egun indarrean dagoena al da benetan nahi dugun zientzia-eredua? Galdera horri erantzun ezean, dena ondo bidean, zifren berdintasunerantz hurbilduko gara etorkizunean, eta



beharbada, baikorrak izanik, emakume eta gizon ingeniari, katedradun edo Nobel saridunen kopurua berdina izango da 50 edo 100 urte barru. Baina benetan nahi al dugu neska eta emakumeak gaur egun indarrean dagoen zientzia patriarkalean txertatzea? Ez al du merezi zientziaren gaur egungo jardunak aurrez azterketa kritiko sakon bat egitea?

Aldagaitza al da zientziaren nozioa?

Aro Modernotik dator gutako gehienok zientziaz barneratu dugun nozioa. Mundu fisikoan gertatzen diren fenomenoak azaltzeko egiaren bilaketa gisa ulertu ohi dugu zientzia, ezagutza objektiboak eta eztabaidaezinak finkatzen dituen. Nozio horri jarraiki, pentsatu ohi dugu zientzialariak (gizonezko zientzialariak, gizona baita iruditeria kolektiboan gailentzen den pertsona zientzialaria) objektiboak eta neutralak direla, eta testuinguru sozial eta politikoak ez duela eraginik haien jardun zientifikoan. Haatik, errealitatea bestelakoa da: suposizio hori ikuspegi positibista, androzentriko eta mendebaldarraren eragina da, balio eta pentsaera jakin batzuk transmititzen dituen ikuspegia, sozialki eraikitakoa. Ohartzen ez bagara ere, gaur eguneraino iritsi den zientziaren ikuspegiak oinarrian du pentsatzea gizon zuriak, herrien konkistatzaileak eta naturaren dominatzaileak, esfortzurako gaitasun eta talentu indibidual izugarrikoak, metodo zientifikoari esker, aurrerapen teknologikoak bultzatuko dituela etengabe, eta gizadiaren aurrerabide geldiezina ahalbidetuko duela.

Egiantan, ordea, zientzia giza jardueraren bat gehiago besterik ez da, historian zehar garatzen joan dena, unean uneko baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalen menpe. Hala, boterea eta erabakitze ahalmena gizon jakin batzuek izan duten jendarteetan, gizon horiek erabaki dituzte zientziaren norabidea, erabilera eta zientzia eraikitze modua bera ere. Horregatik, bereziki esanguratsua iruditzen zaigu hausnartzea zer hartzen duen barnean gaur egungo zientziak eta, bereziki, zer gelditu den zientzia horretatik kanpo eta zergatik izan den baztertua. Bazterketa horren adibide lirarteke, esaterako, mendetan zehar emakumeen gutxiagotasun intelektuala erakusten saiatu izana hainbat metodo zientifikoaren bitartez (eta ez soilik emakumeena, baita kolonizatutako herriena ere), eta izaera zientifikoa ukatu izana hainbat jakintzari (emakumeen esku zeuden etxeko eta zaintza lanekin lotutako gehienei), eremu pribatura zokoratuz berez zientzia barnean hartzen duten jakintza horiek.

Elikadura, nekazaritza edota jantzi, osasun edota higienarekin lotutako jakintzak zientziaz kanpo gelditu ziren, eta horiekin lotutako lanak egiteko ardura emakumeen esku gelditu zen. Lan horiekin lotutako ezagutzak eta praktikak esfera publikora pasatu diren arte, ez zaie barnean duten zientzia aitortu, aitortza partziala egin bazaie ere, beren hasierako garapenari ez ikusiarena eginez. Hala, Monsanto konpainia transnazionalak transgeniko errentagarriak ekoizteko darabilen bioteknologia zientzia da ezbairik gabe, baina ez da zientzia

Bizitzako esperientzia unibertsitatekoa bezain baliagarria izan daiteke; amama-ama-alaba-biloben arteko ahozko transmisioa idatzizko lan akademikoak bezain esanguratsua izan daiteke. Emakumeok berezkoa dugu zientzia egitea. Eraiki dezagun bizitza erdigunean kokatuko duen zientzia.

tokiko haziak hautatzea, hobetzea eta gordetzea, komunitate bakoitzaren elikadura- eta osasun-beharrei egokitzeak. Era berean, ehunak sortzeko material sintetikoak diseinatzea zientzia da, inolako zalantzarik gabe, baina ehunak ekoizteko antzinako teknikak erabiliz kotoia, lihoa edo artilea manipulatzeko eta presatzea, ez.

Izan ere, bizitzarako oinarrikoak diren jakintzetako asko, merkatuak ezin diren jakintzak edota egungo zientzia-sistemaren zilegitasuna auzitan jar dezaketenak, gutxietsi eta alboratu egiten ditu zientziak, edo, hobeto esanda, zientziak bainoago, legitimotzat hartutako zientzia gidatzen eta finantzatzen duten enpresek eta pertsonak gutxiesten eta alboratzen dituzte. Hala, indarrean dagoen zientzian, esparru kontzeptual estuen ekoizten da ezagutza; esparru estu horiek mugatzen dute zer den ezagutza, nork sor dezakeen eta non sor daitekeen, eta alborapenak eragiten ditu horrek guztiak. Hori dela eta, guk ere bat egiten dugu fokua zabaltzea helburu duten proposamenekin: zientziazat ulertzen duguna berrinterpretatzeko eta nolako zientzia nahi genukeen erabakitzeak beharra aldarrikatzen dugu.

Zientziaren nozioa berriz pentsatzea, zientzia kontzeptuari esanahi berriak ematea

Zientziaren hastapenetan, *Scientia* jakintza bezala ulertzen zen, gai

baten inguruan metatutako abilezia edo esperientzia gisa. Horren arabera, zientziazat har daitezke nekazaritza-rekin lotutako ezagutzak eta abilezia, baserrietan energia ekoizteko eta aprobetxatzeko moduak, janaria kontserbatzeko prozedurak, edota landareak pertsonak eta animaliak sendatzeko erabiltzea, besteak beste.

Jakintza horiek ezinbestekoak dira bizitzaren jasangarritasuna bermatzeko; ugalketari lotuta daude, eta mendeetan zehar emakumeek sortu, aberastu eta garatu dituzte nagusiki. Kolektiboki garatu ere, eta belau-naldiz belaunaldi transmititu; izen propioen markarik gabe iritsi dira gungaino. Komunitate osoak (izan tokiko komunitatea, izan globala) parte hartu du jakintza horien garapenean eta transmisioan, eta su txikian egosi ditu. Hori hala izan da, aurrerabidea lankidetzaren eta sinbiosiaren sortzaile bezala ulertu delako, ez lehia bezala. Bestalde, jakintzaren transmisioa eta zabalkuntza oinarrikoa izan da jakintza bera sortzeko. Bokazio hezitzaile eta dibulgatzaile hori agerikoa da hainbat emakume zientzialari handirengan ere (Émilie du Châtelet, Hipatia edota aurrez aipatutako Mary Somervillegan, adibidez), ahalegin handiak egin baitzituzten beren komunitateei ezagutzarako sarbidea errazteko.

Halako jakintzei zilegitasuna aitortzeak, garrantzia emateak, erabilgarritasuna balioztatzeak eta zientziaren barruan leku egiteak balio diezaguke ezagutzaren ohiko iturriak birplanteatzeko eta beste iturri batzuk ontzat emateko. Hori eginez gero, ikusiko dugu bizitzako esperientzia unibertsitateko esperimentazioa bezain baliagarria izan daitekeela; amama-ama-alaba-biloben arteko ahozko transmisioa idatzizko lan akademikoak bezain esanguratsua izan daitekeela. Horrez gain, halako jakintzei esker, zalantzan jar ditzakegu zientzia modernoan irmoki errotuta dauden indibidualtasuna, konpetentzia, patenteak eta horrelako hainbat fundamentu. Eta ez hori bakarrik: aukera ematen digute emakume anonimo askok eta askok gizadiaren aurrerabidea ahalbidetzeko egindako lana balioesteko. Izan ere, ez dira

salbuespenak edo kasu puntualak; emakumeok berezkoa dugu zientzia egitea.

Eta bai, dagokigun tokia nahi dugu zientziaren alorrean, noski, baina ez gutxi batzuek gutxi batzuentzat moldatutako zientzian. Has gaitezen guztion artean nolako teknozientziak nahi ditugun erabakitzen. Eraiki dezagun bizitza erdigunean kokatuko duen zientzia.

Bibliografia

- EHRENREICH, Barbara eta ENGLISH, Deirdre: *Sorginak, emaginak eta erizainak. Emakumezko sendalarien historia bat*, Katakarak, 2019 <https://katakarak.net/eus/argitaletxea/liburua/sorginak-emaginak-eta>
- HERNANDEZ PIÑERO, Aranza: “La apuesta política de Vandana Shiva: los saberes de las mujeres y la sostenibilidad de la vida” in *Dilemata* aldizkaria, 10. alea, 2012, 329-355 orriak. <https://www.dilemata.net/revista/index.php/dilemata/article/view/182>
- HERRERO LOPEZ, Yayeri elkarrizketa: “Jendeak jakin behar du bizitza duina zer den, zer behar den eta zer ez”, in *Argia*, 2016ko irailaren 25a. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2522/yayo-herrero-antropologoa>
- LARRINAGA RENTERIA, Ane: “Zientzia eta teknologia ez zaizkie gustatzen neskei” in *Berria*, 2017ko martxoaren 19a. https://www.berria.eus/paperekoa/1832/025/003/2017-03-19/zientzia_eta_teknologia_ez_zaizkie_gustatzen_neskei.htm
- SANCHO ORTEGA, Teresa; CALERO BLANCO, Vanesa; VILLENA CAMARERO, Unai: *Emakumeen jakintzek gordetzen duten zientzia gida didaktikoa*, Sorkin, 2017. <http://www.sorkinsaberes.org/eu/%E2%80%9Cemakumeen-jakintzek-gordetzen-duten-zientzia%E2%80%9D-gida-didaktikoa>
- SOLSONA I PAIRÓ, Nuria: “Génesis y desarrollo de los saberes femeninos en la educación”, in *Aula de innovación educativa*, 191. alea, 2010, 7-11 orriak <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3227801>

ARGITALPENAK




INDIAR TXIKIA

Ricardo Alcantara eta Gusti

PAMIELA- KALANDRAKA

Juantxo txikiari mozorrotzea eta gelari indiar bihurtzea gustatzen zaio. Indioz mozorrotu eta sekulako abenturak bizitzen ditu. Fantasia eta sormenaren munduan sartzeko bide aproposa eskaintzen du liburuak, harik eta Juantxoren amak errealliteratu bueltatzea behartzen duen arte, zaldia berriro erratza bihurtuz.



BALOI MAGIKO BAT DUT

Jansain eta Maria Pinku

SAURE

Liburuko protagonista den neskatxak baloi magiko bat du. Baloia kolorez aldatzen da eta barruan duen irudia ere aldatu egiten zaio. Kolore eta irudi bakoitza *txakra* bati lotuta dago eta ondorioz, bakoitzarekin gauza desberdin bat lantzen du: asmoa eta xedea, intuizioa, sormena, autoestimua, gozamina, tolerantzia...



100 KONTU ONDO EZAGUTZEKO LUR PLANETA

Hainbaten artean

TTARTALO

Liburu interesgarri eta entretenigarri honek 100 gauza biltzen ditu gure planeta hobeto ezagutzeko: kamioi bat betetzeko adina plastiko botatzen dugula minuturo itsasoan; lurra usaintsuagoa dela euri-zaparraden ondoren; Atacamako basamortuak Marte aztertzen lagutzen duela etab.



JAKINGARRIAK

Hainbaten artean

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Agertzen diren artikulua eta erreportajeak gai nagusi baten jiran idatzita daude: eraldaketa digitala hezkuntzan. Digitalizazioa ardatz hartuta horrek ikasleengan, irakasleengan, komunikazioan, ikaskuntza prozesuetan eta abar dituen ezaugarriak, aldaketak, baliabideak eta erronkak aztertzen dira hainbat ikuspuntutatik, betiere egunerokotasunari lotuz.



BAT SOZIOLOGUISTIKA ALDIZKARIA, 112. ZENBAKIA

Hainbaten artean

SOZIOLOGUISTIKA KLUSTERRA

Hizkuntzaren normalizazioan eta glotodidaktikan espezializatutako aldizkariaren azken zenbakian *Euskaltzaleen mugimendu berritua* da gai nagusia. Euskalgintzaren nondik norakoak, mugimenduak, erabilera, herri mugimenduen arteko elkarriketak eta balioak dira zazpi artikulutan lantzen diren gai batzuk.



ARKITEKTURA LEHEN HEZKUNTZAN

Hainbaten artean

ARIZMENDI IKASTOLA

Espazioaren eraldaketa, arkitekturaren garrantzia eta Lehen Hezkuntzako metodologia biltzen dituen liburuak garatu du Arizmendik *Arkitektura Lehen Hezkuntzan* izenburupean. Liburuak oinarri izango da eraldaketa honi ekin nahi dion edonorentzat, baita prozesuan buru-belarri dabilenantzat ere.

PROPOSAMENA

Aikur erle museoa

Erlezaintzaren inguruan jakin beharreko guztiaren bilgune

Udaberriaren etorrerarekin batera erleak lan betean ikusteko aukera eskaintzen du Urretxuko Aikur Erle Museoak. Ikastetxe zein familientzako bisita gidatuak eskaintzen dituzte, astegunetan eta asteburutan. Museoak, gainera, 'Baserria Natur Eskola Bizia' proiektuko parte ere bada. Baserria bera eskola aparta izan daitekeela erakutsi dute.

Gure inguruneke fruitu, barazki eta basalandareak erleen eta antzerako intsektuen polinizazioari esker bizi dira. Horri lotuta dago intsektu hauek ekosistemaren biziraupenean duten garrantzia. Erleek ingurunean betetzen duten zeregina gizarteratu eta intsektu hau hobeto ezagutzeko asmoz egiten dute lan Urretxun kokatuta dagoen Aikur Erle Museoan. Aikur erlezaintzako guneak



1995ean ireki zituen ateak, eta, erleekin lan egiteaz eta erlauntzeko produktuak komertzializatzear gain, erleen bizitzari buruzko dibulgazio-lana ere egiten dihardu. Lenbur Fundazioaren laguntzari esker, Euskal Herriko erle-museo garrantzitsuena ere bada Aikur, 2007az geroztik. Josune Epeldek eta haren familiak erleen bizitza nolakoa den, erlauntzeko produktuak zein diren eta erleek ekosisteman zer garrantzia duten azaltzen diete museora doazen bisitariari.

Museoaren barnean, tradizioa eta modernitatea uztartzen dituzte 280 metro koadroko gunean. Alde bate-

tik, erlauntzei eta aspaldiko lana-besei egin diete tokia, eta bestetik, argi-panelei eta pantaila ukigarriari. Bi solairu ditu museoak, eta, horietako bakoitzean, hainbat arlo lantzen dituzte. Behoko solairua, esaterako, hiru arlo tematikotan berezita dago: erlezaintza eta polinizazioa, mitologia eta historia, eta produktuak. Museoaren arduradunak dioenez, "solairu honetan, alde batetik, garai batean Euskal Herrian erlezaintzarako erabili zizuzten erlauntzak eta lanabesak nolakoak ziren ikus daiteke. Bestetik, erleek ekosistemaren biziraupenean duten garrantziaren berri ematen dugu. Eta, azkenik, er-

lezaintzatik eratorritako produktuak aurkezten ditugu, eta, bide batez, Euskal Herriko hainbat ezti mota dastatzeko aukera ere eskaintzen dugu.

Goiko solairuan azaltzen da erleen bizitza bere osotasunean, bi ataletan banatuta. Epeldek dioenez, “erleen bizitza ulertzeko, ezinbestekoa da haiek bertatik bertara ikustea”, eta, horretarako, behaketarako propio prestatutako bi erlauntza dituzte. Batetik, erle erregina nolakoa den deskubritzeaz gain, ezti, polena eta erlauntzeko beste hainbat produktu nola sortzen eta biltegitratzen dituzten ikusteko aukera dago erlauntza horiei esker, eta erleek komunikatzeko erabiltzen duten modu konplexua ulertzeko ere bai. Bestetik, berriz, erleek egindako abaraska naturalak ikus daitezke kristalezko kutxa batean; gizakiak patroirik jarri gabe, erleek naturan egingo luketen moduan.

Dibulgazioa lantzeaz gain, erlauntzetik zuzenean jasotako produktuak ere eskaintzen dituzte: funtsezko produktua ezti da, noski, baina propolia, kandelak, argizaria eta polena ere eskuragarri izango ditu Aikurrera jotzen duenak.

Eskolek zein familiek Aikurrera bisita egiteko, beharrezkoa da aurrez erreserba egitea. Udaberriarekin batera, martxoan ekingo diote berriro bisitarienzako jarduerak eskaintzeari, negu sasoiaren atseden hartzen baitute museoaren arduradunek, erleen


antzerako. Erleek udaberriaren ekingo diote euren urteroko elikagai-bilketa nagusiari, eta, beraz, irekita izango ditu ateak Aikur Erle Museoak martxotik aurrera.

'Baserria Natur Eskola Bizia'

Aikur Erle Museoaren Baserria Natur Eskola Bizia proiektuko parte ere bada, eta pedagogia-arloko eskaintza bat egiten du, beste hainbat eragileekin batera. Hogei urtetik gora igarotzen dira Goimenen ekimenez (Goierriko Mendi Nekazaritza) proiektu pedagogikoa abian jarri zenetik. Urte hauetan guztietan, baserriaren talde batek bere lana alderdi pedagogikotik aberastu zuen; baserriak egokitu, material didaktikoa sortu, eta dirulaguntzak lortu zituen.

Egitasmoa abian jarri zenetik, 80.000 ikasle baino gehiago pasatu dira eskola bizi honetatik. Proposatzen diren 8 jardueren bidez, ikasleek aukera dute beren eskuekin gazta, ogia, pastak, kandelak, zeramika, marmelada, kontserbak eta azokako erosketak egiteko, aukeraturako baserriaren arabera. Sustantzaileek gaineratu dutenez, ekintza guztietan garrantzia handia ematen diote ikasleek prozesu guztian parte hartzeari, eta, gainera, ekintza batean zein bestean ekoiztutako produktuak etxera eramaten dituzte.

Proiektuaren helburuak dira, batez ere, eskolei ikasgela berezi bat eskaintzea, irakasle eta guzti. Natura, abere, elikadura, osasun, iraunkor-



Aikur erle museoaren

Kokapena

Santa Barbara z/g
20700 Urretxu (Gipuzkoa)

Harremanetarako

- Tel.: 630 70 25 87
- E-posta: aikur@aikur.eus

Hezkuntza-arloko eskaintza

- Erlezaintzari lotutako lantegiak

tasun eta ingurumenarekin lotutako gaiak jorratzen dira modu didaktiko batean, eta bertatik bertara. Bestalde, baserriaren beste jarduerak eta diru-iturri bat eskaintzen zaie, ekoizle soilak izatetik irakasle lana aitortzera pasatzen baitira.

Ildo horretan, 2010ean, Lehen Hezkuntzarako material didaktikoa sortu zuen adituen talde batek, eta hainbat ariketa-joko prestatu zituzten ziklo bakoitzerako. Guztiak proiektuaren webgunearen bidez eskuratu daitezke, honako helbide honetan: www.natureskolabizia.com.



ATZEKO ATETIK



AITA LUCIANO

ANGEL REKALDE HISTORIALARIA

Hezkuntzari eta haurtzaroari dagokienez, urte gutxitan gauzak hainbestearino aldatu direnez, ez gara apenas ausartzen duela ez horrenbeste nola bizi ginen gogoratzera. Gure garaian sozializatzeko bidea eman zigun eskola frankista haren ezaugarria autoritarismoa zen, agintekeriaren gorazarrea nahiz muturreko larderia, eta haren ikuspegia guztiz espainola, inperiala, handioski erridikulua eta barregarri epikoa. Ikasgela batzuetan, *Cara al Sol* ereserki falangista abesten zen, eta, beste batzuetan, arrosarioa errezatzen zen. Txintik atera gabe, badaezpada. Nazional-katolizismoa, mota batekoa nahiz bestekoa, edo bietakoa.

Ez ziren garai atseginak, ezta sistema gizagabe hartan ikasi zuten irakasleentzat ere. Urte haietan, ohikoak ziren paliopeko prozesioak, galako trikornioak zeremonietan eta elizetako lehen lerroan, ezertarako balio ez zuten baina agertokiko *atrez-zoan* parte hartzen zuten sableak. Legeak –eta sinesmen kristauak– hala aginduta, ideario bat ikasi genuen, zeinaren ezaugarriak baitziren erretrika nazionala, gazteleraz mintzo zen jainko batengana zihoan inperioa, miseria gorria eta *desarrollismo* ba-

satia, suntsitzailea eta izugarri gustu txarrekoa.

Gure eskola erlijiosoan irakasten ziharduten apaizak saiatzzen ziren hondamenditik zerbait nola edo hala salbatzen. Aita Lucianoren kasua datorkit gogora. Haren izena siziliarra iruditzen zitzaidan. Azeri samarra, diskretua, hizkera patxadatsua zuena eta barnekoia, losintxak eta handikeriak maite ez zituen; ez dut uste inoiz otuko zitzaionik egunen batean berari buruz idatziko nuenik. Historiako eskolak ematen zizkigun, eta gure garaia ulertzen lagundu zigun. Nafarroa zela euskaldunen jatorria. Gure herriaren historia Nafarroaren historia dela, eta ez genuela besterik eduki, geurea zenik behintzat, azken hamar edo hamabi mendeotan.

Gure irakaslea zelarik, harekin nolabaiteko konfiantza eta konplizitate lortu genuenean, bide erlijioso zergatik hautatu zuen kontatu zigun. 36ko gerraren hasieran, Nafarroako bere herrian, Molaren basapiztiak bi aukera eskaintzen zizkieten ideia errepublikarrak edo sentimendu euskaltzaleak zituztenei: “frontea ala fusilamendua”. Lucianok, liburu batzuk irakurria eta inguruko gehienak baino azkarragoa izaki, hirugarren bide bat aukeratu zuen. Apaizgai-

tegia. Eta horrela libratu zen, beste batzuk beste aukeretako batean zein bestean hiltzen zituzten bitartean. Gerra bukatuta, Franco irabazle zelarik, ez zen bere ezkutalekutik irtetera animatu, eta pentsatu zuen hobe zela bertan geratzea. Horrela, apaiz egin zen. Alabaina, apaiz zuhur eta eszeptiko hark bere sinesmena zeukan, eta bere ikuspegia zuen “izpiritu nazionalak” zituen ideiei, erlijioari, inferuari, espainolen loriari, *Cara al Sol* ereserkiari, errekonkistari, errege godoen zerrendari eta curriculum ofizialak estu-estu zaintzen zuen horri guztiari dagokionez.

Hezkuntza-sistema ezin eskasagoa zen, ustela eta gezurtia. Baina hezitzailearen gaitasunak gabeziak gaintzen zituen. Irmotasunez, konbentzimenduz eta transmititzeko trebetasunez, Lucianok gure herriaz zuen ikuspegia, zuhurtzia, nafarra izatearen memoria, euskaltasuna eta herriek askatasuna izateko duten eskubidea erakutsi zizkigun, frankismoaren garairik beltzenez. Horixe dauka irakaskuntzak; sistemak asmatu edo porrot egin dezake, baina beti da ezinbestekoa (eta ezin asmatuzkoa) pertsonaren eragina. Graham Greenek idatzitakoa ekarriz, giza faktorea.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

2020-2021 ikasturtea

Zatoz
gurea!

Ikastera,
jolastera, hazterea...

Aurrematrikula / 2020ko urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

ONLINE AURREMATRIKULA / www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Jaso urtean lau zenbaki,
20 €-ren truke

Hazi Hezi

haziera eta heziketa
aldizkaria



Hazi Hezi eta **hik hasi**
familia eta eskola
heziketari garrantzia ematen diogunon komunitatea

Harpidetzak:

hikhasi@hikhasi.eus • 943 37 14 08 • www.hikhasi.eus